



KATTALINGUNE

LGTBI+ zerbitzua Sakanan

Arakilgo Udalak Lekunberrirako gasbidea Plazaolatik eraman nahi du, ez Aralartik / 5

Irañetako ur biltegi berriko lanak despeditzeko gutxi falta da eta aurten erabilgarri izango da / 7

Batzarraren ondoren, Arruazuko Udalak lehenasunezko lau lanak zeintzuk diren zehaztu du / 9

Joanes Bakaikoak Baikoko pilotariak "pilotarendako onena" nahi dutela nabarmendu du / 16-17

June Kintanak Espainiako disko jaurtiketako zilarrezko domina lortu zuen / 18-19

Iratxe Reparaz arbizuarrak "ideiak, proiektuak eta mezuak" garatzen ditu / 23

AEKn,
IRAKASLE BATEK
BIK BESTE
BALIO DU.



Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.



Jonire Urrutiarodu Aizpuru
AEK-ko irakaslea

EUSKARA- IKASTAROAK

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna:
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

Sakanako Mank: BEKAK

DIRULAGUNTZAK

Eskubideak bermatzeko zerbitzua

Txandaka, Irurtzongo kultur etxeak eta Lakuntzako udaletxeak sexu eta genero aniztasunari buruzko zerbitzua, Kattalingune, hartuko dute ostegunetan



Vanesa Egiluz Gonzalez eta Goreti Etxepare Alberro aurrean, David Oroz Alonso eta Oihana Gallo San Roman, atzean.

2020-2021
IKASTURTEA
CURSO
2020-2021

La próxima,
en euskera

Hurrengoan,
euskaraz!






KATTALINGUNE
ZERBITZUA

GOZATU EUSKARA! DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKALTEGIEI ETA LAGUNTZEI
BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA HEMEN
TODA LA INFORMACIÓN RELATIVA A
CENTROS Y SUBVENCIONES A LA
MATRÍCULA

948 012 012

euskaraikasi.nafarroa.eus
aprendeuskera.navarra.es
elaide.eus



UDALAK / AYUNTAMIENTOS: ANSOAIN / ANTSOAIN, AOIZ / AGCITZ, ARANGUREN, AURITZ / BURGUETE, BARAÑAIN, BASABURJA, BERRIOPLANO / BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BURLADA / BIJRLATA, CENDEA DE OLZA / OLTZA ZENDEA, ERROIBAR / VALLE DE ERRO, ESTELLA-LIZARRA, ESTERIBAR, ETXAURI, GALAR, HUARTE / UHARTE, IMOTZ, LIZOAIN-ARRIASGOITI / LIZOAINIBAR-ARRIASGOITI, LUZAIDE / VALCARLOS, ODIETA, ORKOIEN, PAMPLONA / IRUÑA, PUENTE LA REINA / GARES, ULTZAMA, VALLE DE ARCE / ARTZIBAR, VALLE DE EGÚÉS / EGLESIBAR, VILLAVA / AJARRABIA, ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

MANKOMUNITATEAK / MANCOMUNIDADES: IRANZU / IRANTZU, SAKANA, VALDIZARBE / IZARBEIBAR

BATZORDE NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES: AEZKOA, RONCAL / ERRONKARI, SALAZAR / ZARAITZU

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aurreneko Kattalingunea Iruñean zabaldu zen 2016an. Tuteran zabaldu zen 2017an. Eta aurten Sakanan zabaldu da. Vanesa Egiluz Gonzalez, Nafarroako Gobernuko Berdintasunerako Institutuko LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordeak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernutik azpimarratu dugu LGTBI+ pertsonen eskubideak garatu eta bermatzeko administrazioek bete beharra dutela. Horrela bermatzeko delako afektibitate eta sexu aniztasuna erabateko askatasunez bizitzea toki guztietan". Horregatik, Egiluzek aldarrikatu zuen administrazioek LGTBI+ politikak egin behar dituztela, "herritar guztiei bere sexu eta genero dibertsitatea aske bizi dezaten bermatzeko".

Gobernuko ordezkariak aitortu zuen LGTBI+ kolektiboaren bultzadarik gabe politika publikorik ez zela izanen. Horregatik, aldarrikatu zuen lan horri helderakoan erakundeak eta LGTBI+ kolektiboak elkarri entzun beharra zutela, "kolektiboak baitira ezagutza, historia, premia eta errealitatearen iturri nagusia".

Legea

Nafarroako Gobernua LGTBI+ pertsonendako berdintasun sozialerako legea onartu zuen 2017an. Lege horren ekintza plana garatzeko lanean ari da foru administrazioa gaur egun. Egiluzek jakinarazi duenez, lan

horrek lau ardatz izanen ditu: erakunde ekintza, prestakuntza eta gaikuntza, sentsibilizazioa eta parte hartzea eta LGTBI+ pertsonen harrera.

Azken ardatz horren barruan kokatzen da Sakanan Kattalinguneak zabaltea. "Sexu eta genero aniztasunari arreta deszentralizatzeko estrategiaren barruan kokatzen da. Gainera, LGTBI+ errealitatea Nafarroako eskualde guztietara gerturatu nahi dugu". Gobernuko ordezkariak azaldu duenez, "azken batean, helburua da arlo guztie-

tan sexu eta genero aniztasunaren baloreak sustatzea da, hainbat gizarte errealitate sentsibilizatu sexu eta generoaren aniztasuna gehituz". Arlo horretan aurrera egiteko, Egiluzek erakundearen kolektiboaren eta herritarren elkarren arteko elkarbizitza aldarrikatu ditu. Azkenik, Sakanako Mankomunitatearen jarrera eta harrera eskertu ditu.

Zerbitzu berria

Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz Alonsok Nafarroako Berdintasun Institutuak zerbitzua Sakanan deszentralizatzeko egindako eskaintza eskertu du. Kattalingunek Irurtzunen eta Lakuntzan atea zabalduko baditu ere, sakandar guztiei zerbitzua emanen diela nabarmendu du, "eta Irurtzundik inguruetako ibarretako herritarrei ere".

Orozek nabarmendu duenez, "sexu eta genero aniztasunarena, LGTBI+ gaia gehiegitan bistaratu ez den gaia da. Herrietan hirietan baino ezkatatuago egoten da". Horregatik, arlo horretan lanketa egiten hastea interesgarria dela uste du ibarreko erakundeetako lehendakariak. "Kattalingune zerbitzu berri hori sakandarren prozesu pertsonaletan eta errealitate hori bistaratzeko lagungarria izan daitekeela uste dugu. Azkenik, Irurtzongo eta Lakuntzako udalen egoitzak uzteko prestutasuna eskertu du Orozek.

Sakanan, non, noiz, nola

Agorrilaren 6tik Kattalinguneak sakandar guztiei ematen die zerbitzua. Ostegunetan zabalitzen ditu atea, 11:00etatik 19:00etara. Irurtzongo kultur etxean eta Lakuntzako udaletxean izan du egoitza, astero batetik bestera txandakatu. Atzo Lakuntzan egon zirenez, hurrengo astean Irurtzunen egonera dira.

Harremanetarako:
iparmendebaldea@kattalingune.org e-posta edo 678 266 865 telefonoa.



Goreti Etxepare Alberro, Kattalinguneko sexologoa.

Sexu eta genero aniztasunari arreta emateko zerbitzu berria

GORETI ETXEPARE ALBERRO KATTALINGUNeko SEXOLOGOA

Zerbitzu berriak informazioa eta orientazioa eman, sexu eta lege arreta eskaini, LGTBI+ talde, proiektu eta kolektiboari arreta eskaini eta koordinazio lanak egiten ditu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANARA

Kattalingorria intsektu bat da. Baina izen bereko elkarte ere bada.

Bai, Nafarroako LGTBI elkarte da. Hainbat LGTBI talderen baturaz sortu zen elkarte 2000. urtean, LGTBI pertsonendako arreta profesionala jasotzeko beharra ikusi zutelako. Garai hartan beraiengana jendea iristen zen haien espazioetan onartua ez zena, askea izatea ezinezkoa zuena.

Agian komeni da LGTBI+ hori zer den argitzea.

L hizkiak lesbiana hitzari erreferentzia egiten dio, emakumezkoak desiratzen dituzten emakumezkoak. G letrak gay-ei, gizonetzkoak desiratzen dituzten gizonetzkoak. Thizkia transexual edo trans pertsonari dagokiena

"BOST LAN ARLO DITUGU ETA PERTSONAK, TALDEAK ETA PROFESIONALAK ARTATZEN DITUGU"

da, jaiotzean esleitu zitzaizen sexua eta sentitutako sexua bat ez datozen emakumezko eta gizonetzkoak dira. B letrak bisexualak diren pertsonari egiten die erreferentzia, bi sexuak desira ditzaketen pertsonari. I hizkiak, berriz, pertsona intersexualena da, hau da, genitalak ezarrita dagoen arauaren arabera bulba edota zakil eta testikuluak kointziditzen ez duten pertsonak. Eta, bukatzeko, plus ikurrak bere baitan hartzen ditu aurreko hizkietan jasota ez dauden izateko,

sentitzeko, begiratzeko edota adierazteko egon daitezkeen modu guztiak. Azkenean, LGTBI+ laburdura ari da sexu eta genero identitate, orientazio eta espresioaz.

Kattalingorri zer den badakigu, baina Kattalingune?

Zerbitzu profesionala da. Kattalingorri elkarteak Nafarroako Gobernuarendako kudeatzen duen LGTBI+ zerbitzu espezifikoa da. Elkarlan hitzarmen baten bidez Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin sortu da.

Zer egiten duzue Kattalinguneetan?

Sexu eta genero aniztasunari arreta eskaintzen dio zerbitzuak. Nafarroako biztanleria guztiari zuzenduta dago. Bertan genero, sexu eta komunitate perspektibak erabiltzen dira. Bost lan eremu ditugu. Alde batetik dago harre- ra, informazioa eta orientazioa. Hori zerbitzurako sarbidea litzateke. Edonor etorri daiteke zerbitzura eta bertan barne eta kanpo baliabideei buruzko informazioa jaso dezake: LGTBI+ kolektiboari buruzkoa edo intereseko bestelakoez. Horri esker lortzen dugu jendea kolektiboekin lotzea, saretea eta elkar ezagutzea. Bigarren lan eremua LGTBI+ pertsonari edo haien gertukoei eskaintako sexu arreta da. Edo nahi eta behar duen edonorendako da. Pertsonak, taldeak eta profesionalak artatzen ditugu. Norbaitek zalantzaren bat edo zailtasunen bat badu bere orientazio, identitate edota espresioarekin gurekin hitzordua izan dezake eta zalantza horiek argitzen saiatzen gara. Uneko kontua izan daiteke, edo prozesua zabal daiteke. Modu ziurrean, konfidentziala. Eta profesionalak bere eremuan sexu eta genero aniztasuna nola landu zalantzak baldin baditu, gurekin harremanetan jarri daiteke eta elkarrekin zerbait sor genezake. Topaketak edo talde lanketak ere egiten ditugu.

Bestetik, lege arreta eskaintzen dugu. Gauza bera, LGTBI+ pertsonari edo haien gertukoei zuzenduta. Maila pertsonalean edo profesionalean izan daiteke. LGTBI+i buruzko legee

"SEXILIOA ERAGOZTEKO, PERTSONAK BERAIEK HERRIAN ASKE IZATEKO"

buruzko informazioa ematen dugu, zalantzak argitzeko. Espazio ziuerra eta konfidentziala da. Laugarren lan eremua da LGTBI+ talde, proiektu eta kolektibo arreta eskaintzea da. Haiek egiten ari diren ekimen eta ekintzak laguntzen ditugu. Baita LGTBI+ ez diren baina beste motatako erakunde eta elkartei laguntza sexu eta genero aniztasuna ikusgarri egiteko, edo halako proiektuak martxan jartzeko. Lanak egitera etortzen diren ikasleak ere hartzen ditugu.

Azkenik, zerbitzuaren aurkezpena, koordinazioak eta halako egitekoak dira. Guretako oso garrantzitsua da zerbitzua eta egiten duguna ezagutzera ematea, zer den sexu eta genero aniztasuna, eztabaida piztea, zentzu horretan sentsibilizatzea... Horretarako zerbitzua hainbat profesional sareri, ikasleei eta herritari aurkezten diegu.

Sakanako Kattalinguneetan bost lan ildo horiek eskainiko dituzue?

Bai. Sakanan estreinakoz eskainiko dugu zerbitzua. Asmoa da zerbitzua pitteka-pitteka ezartzea.

Zergatik Sakanara?

Kattalingune 2016an sortu zen eta, betidanik, bere helburua izan da Nafarroako eskualde guztietara iristea. Gainera, LGTBI+ errealitatearekin harreman handia daukan fenomeno bat da sexilioa. Hau da, pertsona batek bere sexu identitate, orientazio edo espresioarengatik bere sorterrira uzteko daukan joera. Batzuetan onartua ez izateagatik, eta baztertua izateagatik. Hori, bereziki, herrietan asko gertatu izan da. Eta, normalean, hiri handietara alde egin izan da. Horregatik erabiltzen da sexilio hitza. Hori dela eta, iritsi nahi dugu eskualde guztietara, fenomeno hori ekiditeko: pertsonak beraien herrian askeak izateko, edo nahi duten lekuan. Pertsona guztiok eskubide hori izan dezagun. Aurten zerbitzua Nafarroa ipar-mendebaldera ekarri dugu, hasieran Sakanan zentratuz, bertan interesa zegoelako.

Sakanako profesionali zerbitzua aurkeztu diezue dagoeneko?

Baten batekin egin dugu; iritsi garela edo bagoazela kontatu zaie. Baina gehiago egiteko asmoa dugu, guztietara iristeko. Eta, pitteka, ikasleengana eta sakan- darrengana iristeko asmoa dugu. Zerbitzua beharren arabera Sakanara egokituko dugu.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Birusa tartean dela

Zazpi hilabete igaro dira COVID-19 gure bizitzetara etorri zenetik. Atea jo gabe, basati sartu eta gure egunerokoa goitik behera baldintzatu du geroztik.

Egun Nafarroa goi-goian dago Europako eskualdeetan positiboek dagokienez eta osasun agintariak berriz hasi dira larritzen, neurri zorrotzagoak eskatzen eta jendarteari arazoaren tamainaz gatzigatzen. Udako kutsatze goraldia hainbat faktorek eragin dute, seguruenera, eta horietako bat giza elkarraldiena izan da, familia ospakizunak, sasi festak, lagun arteko otorduak edota kale zurrutak.

Adinean gora goazenok jakitun gara zer diren festak gazte garaian, nolako bizigarri eta pozaldia ekartzen duten eta nolako esperientzia errepikaezinak eskaintzen dizkiguten.

Bada, helduontzat ere ez da erraza izaten ari ebento basamortu hau zeharkatzea; egin ez diren eta egingo ez diren elkarraldien zerrenda mardultzen ari da, eta Gabonetako zikloarenak ere oso kolokan daude.

Altsasun izan ziren lehengo asteburuan sasifestak, eta bertatik bertara ikusi genituenak ez ziren batere lasaigarriak izan. Ez naiz ari telebistetan eman zituzten ordu txikiak istiluz (horiek bestelako hausnarketa merezi dute). Iluntze eta gau aldean hainbat herritar (gazte eta ez hain gazte) segurtasun tarterik gorde gabe, musukorik

gabe zebiltzan dantzari, kantan edo zurrutean umore onean, bizi dugun garaian izkin eginez. Berriz diot, zeinen triste eta lehorra den festarik gabeko bizitza, egun berezi eta kuttun horiek baino axolabaiako bat bezala pasatzen ikustea...

Baina, hala egokitu zaigu, egokitu zaigunez eta geure puska ekarri behar dugu denok egoera hau ahalik eta laburren pasa dadin. Diruz gauzatzen ez den elkartasunean aritu behar dugu, belaunaldien arteko elkartasuna jorratu behar dugu, gaitzak nor kolpatzen duen gehien kontuan hartuz. Ea zer gertatzen den ferietan!!!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Sakanako emakumei: "pertsonala politikoa da"

SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ETA ALTSASUKO UDALAREN BERDINTASUN ARLOAK

Mila eta mila aldiz egoera honen ondorioei buruz hitz egin dugu; GUAIXEN ere artikulu eta iritzi asko argitaratu dira krisi honek 'hobetu beharreko arloak' zein dituen nabarmendu dituenak.

Nahiz eta Mugimendu Feministak 'Bizitzak erdigunera' eramatea ezinbestekoa dela aspalditik esan, krisi honetan talde eta instituzio askok bere egin dute aldarrikapen hau, gurek ere. Honen ondorioz une honetan erakundeek eta guk, emakumeok ere, badugu erronka handi bat: nola gauzatu helburu hori. Zein arlotan eta zein neurriekin. Hau da egin behar duguna!

Nafarroan 2020 urtean emakumezkoen jarduerara tasa

%52,13tik %49,97ra jaitsi da. Gizonezkoena, berriz, %62,95tik %61,70ra. Zein da kontuan hartzeko datua? Une honetan lan egiteko adinean dauden %60,03 emakumezkoak lan mundutik kanpo daudela.

Abuztuan Sakanako emakumezkoen langabezia %10,43 zen, eta zifra honen %7,59 zerbitzuen sektorean zegoen. Denok dakigu emakumezkoen enplegu gehiena sektore honetan dagoela. %7,24 zen gizonezkoen langabezia, %3,07 zerbitzuen alorrean eta %2,99 industrian.

Beste 'hobetzeko arloei' buruz oso datu gutxi dugu (gure ikuspuntutik, gutxiegi). Konfinamenduan zaintza sareak sortu ziren herri gehienetan, baina gero herri gutxitan mantendu egin dira. Ez al dira beharrezkoak? Beharrak

aldatu egin al dira?

Administrazioek eskaera hauek bete al dituzte? Nork beteko ditu? Erantzunkidetasuna da eskatzen duguna, bai gizonena baita gizartearena ere: pertsonen zaintza, lurraren zaintza, inguruaren zaintza ez dira emakumeen ardura, guztion ardura baizik.

Ezin dugu bukatu emakumeen kontrako indarkeria aipatu gabe: krisi honetan Sakanan handitu egin da salaketan kopurua (bikoiztu baino gehiago) eta orain agertzen ari dira ondorioak. Arazo hauen aurrean, gehienetan, irtenbide pertsonala eskatzen du gizarteak, eguneroko dinamikan lehentasuna ez dutelako; eta gehienetan guk, emakumeok, uste dugu irtenbide pertsonala lortu behar dugula. Horiek akatsak edo...gezurrak!

Benetako irtenbideak ez dira inoiz pertsonalak izango, politikoa baizik.

GUTUNA

Iruña Veleia gose greban

JOSE LUIS ERDOZIA

Laster, bi hilabete beteko ditu dagoeneko gose greban Gasteizen Joxemari Lejardi "Gabixola" bizkaitarrak. Berehala esaten da, bi hilabete ezer ere jan gabe. Esan bai, berehala, baina jasan beste kontu bat da. Oso barneratuta izan behar da aldarrikatzen dena, hainbeste denboran gorputzari ezer solidorik sartu gabe irauteko. Barneratuta eta horrekin batera, aldarrikatutako lortzeko beste irtenbiderik ez dela ikusten garbi izana. Eta baldintza horiekin

guztiekin ere, gogorra baino gogorragoa hartutako erabakia.

Hala ere, ez dirudi tamaina horretako ekintzak beharko lukeen jarraipena edo isla izan duenik euskal gizartearengan. Gasteizko Alde Zaharreko edo gutxiarik Aiztogile kalekoek bai izanen dute gose greba honen berri, hortxe ari baita burutzen Gabixola bere saioa, baina Euskal Herriko gainerako txokoetan ez du ematen ezer sumatu denik. Euskal komunikabideek antzeko egoerei eskaini izan dieten arreta, ez diote oraingoan euskal kulturak inoiz izan duen aferarik garrantzitsuena argitzeko burutzen ari den honi eskaini. Haiek jakinen dute zergatik!

Gose greba honekin Eusko Legebiltzarrak Iruña Veleiako grafitoak laborategi egokietan aztertuko dituztelako bermea eskaini dezan lortu nahi da. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da gertu egon daitekeen aferari buruzko azken epaiaren ondoren, Arabako Aldundiak zaintzan dituen grafitoak ez suntsitzea, lehen epaiketan entzundako zenbait testigantza horretarako kezka sortzen du eta.

Horregatik, garrantzitsua izanen da bihar, irailak 19, 18:00etan Gasteizen, Bibat museotik (Aiztogile kalea, 54) Eusko Legebiltzarrera eginen den giza katean parte hartzea. Gondebidatuta zaude.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhora Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ettxeberri eta Lekunberri arteko gasbidea egiteko proiektua egin dute. ARTXIBOA

Aralar mendian gora gasbide bat?

Arakil eta Larraungo udalek administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dute Nafarroako Gobernuak Ettxeberri eta Lekunberri arteko gasbide baterako baimena ematearen kontra, eta, aldi berean, bide berri bat aztertzeke eskatu dute

ARAKIL

Gaur egun bi estazio sateliteren bidez hornitzen da gasez Lekunberriko herrigunea eta industrialdea. Nedgia Navarra SAK sareak eta zerbitzuak hedatzeko duen planaren barruan gasbide bat eraman nahi du Lekunberri-ara. 2018koa da egitasmoa. Gasbidearen trazadurarendako hiru alternatiba proposatu zituen: Leitzatik abiatzea, Astiztik abiatzea edo Irurtzundik abiatzea eta Plazaolako bide berdean barna segitzea. Sustatzaileak azken alternatiba hori hiru arrazoi-rengatik botatu zuten atzera: lan pistaren zabalera eraikuntza egiteko teknikoki behar dena baino txikiagoa delako (8 metro-

ko zabalera nahi du), trazadura horrek tunelak zeharkatzen dituen asko zailduko litzatekeela prozesua, eta trazaduraren zati bat Nafarroako Gobernuaren errepide sareko galtzada delako.

Leitzatik aldatzea ere baztertu zuten. Eta Astizkoaren alde egin zuten. Zuhatzu eta Ihabarko aukerak baztertu zituen enpresak eta, beraz, gasbidea Ettxeberritik abiatuko litzateke eta Aralarako

EZ DAUDE GASBIDE PROIEKTUAREN KONTRA, TRAZADURAREN KONTRA BAIZIK

magalean gora eginen luke Ode-ritzko inguruetara ailegatzeko. Puntu horretatik aurrera, trazadura NA-7500 errepidearen ondoko pasabide batetik joan litzateke, eta Lekunberriko hirigunearen inguruan, errepide-tik aldentzen hasiko litzateke, industrialdera ailegatu arte.

Zertan da?

"Tramitazioa nahikoa aurreratu dago. Azkeneko pausotan dabil. Desjabetze prozesu guztiekin hasi dira. Azken finean, Larraungo eta Arakilgo udalen baimenen zain daude. Horretarako zenbait dokumentu aurkeztu behar dituzte". Haietako bat Ingurumen De-

partamentuan dago gaur egun. Hura jasota "aurrera eginen lukete", azaldu du Olaberriak.

Udalek, kontzejuek eta herritarrek alegazioak aurkeztu zituzten proiektuari. Arakilgo Udalarena atzera botatu zuten. Besteak beste Aralartik gasbidea eramatea merkeagoa zela erantzun zuten. Olaberriak jakinarazi zuenez, "gure peritua estimazioa egin zuten eta gezurra da. Bestetik, esaten dute teknikoki Plazaolatik ezin daitekeela eraman. Gure txosten teknikoan erakutsi dugu aukera egingarria dela".

Alkateak gaztigatu duenez, "jendeak proiektuaren ezagutzarik ez zuten, oso isilik egin izan den zerbait izan da. Gaia publiko egin dugunetik kontrako mugimendua dago". Arakilen proiektuak ukitutako Ettxeberri, Egarrera eta Etxarrengo kontzejuek proposatutako trazaduraren kontra agertu dira. Ondorioz, desjabetze txostenak eta beste-lakoak ez dituzte sinatu.

Epaitegian

Arakilgo eta Larraungo Udalek adierazi dute ez daudela gasbide proiektuaren kontra. "Lekunberri beharra dago eta hura ase behar da". Bi udalak aukeratutako trazaduraren kontra daude. Horregatik, udalek administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu dute Nafarroako Gobernuak baimena ematearen kontra. Aldi berean, Plazaolako trazadura aztertzeke eskatu dute. Eta txostena aurkeztu dute.

Alkateak ziurtatu duenez, "badaude alternatibak. Berez enpresak, hasiera batean, ongi ikusten zuten Plazaolako alternatiba". Olaberriak azaldu duenez, "hori da bide naturala. Teknikoki egingarria da. Ez da erokeria bat. Merkeagoa da. Hodi eta kanalizazio guztiak hortik doaz". Izan ere, Plazaolan barna eramaten da gaur egun Iribastik Irurtzunera arteko goi ur hornidura sarea eta zuntz optikoaren sarea handik hedatzen dira.

Olaberriak azaldu duenez, "2017an Nafarroako Gobernuarekin, Nasuvinsarekin hartu-emanak izan ziren eta ongi ikusten zuten Plazaolako aukera. Ez dugu ulertzen orain zergatik halako aldaketa". Bestalde, hainbat gabezia ikusi dituzte udalek egitasmoan: ez du ingurumen kalteen gaineko txostenik eta, beraz, ez dago zehaztuta nola berreskuratuko luketen ukitutako ingurunea, eta topografia ikerketarik ez da egin.

Eta gogorarazi du Aralar mendia babestutako eremua dela: "Gasbidea Babes Berezirako Gune batetik pasako litzateke". Karst gunea dela ere nabarmendu du: "ukituz gero ezin da berreskuratu. Gainera, ez dakite non sartzen diren. Hor leze pila daude. Haiak zuhaitzak jarriko dituztela diote. Baina hori ez litzateke bere onera bueltatuko. Egarreran trikuharrak ditugu. Arkeologia intereseko gauzak daude, gure kultura direnak. Hori ukitzea, beste alternatibak daudenean, erokeria da". Arakilgo Udalak egitasmoaren trazadura bertatik bertara ezagutzeko txangoa antolatuko duela aurreratu du Olaberriak. Bestalde, egitasmoaren berri emateko hitzaldia izanen da Irurtzongo kultur etxean lastailaren 9an ziuurren.

Datuak

- **4.671 metroko** luzera du gasbideak.
- **8 metroko** zabalera luke gasbidearen azarnak.
- **0,8 eta 1,5 metroko** sakoneran egonen da hodia.
- **6.700.000 euroko** aurrekontua du Aralarako trazadurak, udalen peritua araberak.
- **4.280.000 euroko** aurrekontua du Plazaolako trazadura, udalen peritua araberak.
- **5.000 zuhaitz** moztea dakar proiektua egiteak.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Despoblazioaren kontrako dirulaguntza kontzejuendako

Jasotako 16.518 euroak hiru zatitan egin du udalak eta kontzejueri eman die herrietan lanak egin ditzan

ERGOEINA

Nafarroako Gobernuak despoblazioaren kontrako jarduerarako dirulaguntza jaso du ere Ergoienako Udalak. Kopurua hiru zatitan egin eta kontzeju bakoitzari 5.506 euro eman dizkio. Kontzeju bakoitzak dagoeneko dirua zertara bideratuko duen jakinarazi du.

Lizarragako Kontzejuak argindar mikro sarrerako jarritako eguzki plakak pagatzeko bideratuko du dirua. Unanuko Kontzejuak, berriz, mediku kontsultategiko leihoak aldatuko ditu. Eta,

horrekin batera, frontoian egungo argiteria kendu eta LEDak jarriko ditu. Inbertsio horren ondorioz, argindar faktura txikituko zaio kontzejuari.

Azkenik, Dorraoko Kontzejuak argiteria publikoan LED argiak jartzeko baliatuko du. Egungo farolak mantendu egingen ditu. Energia eraginkortasun neurri horrekin faktura txikiagoa lortuko ditu kontzejuak. Gainera, San Pedrorako bidean bi banku jarriko ditu, pasieran ibiltzen diren herriko aitona-amonak esertzeko.



Unanuko kalea. ARTXIBOA



Irurtzungo autobus geltokia. ARTXIBOA

Konpetentziak autobus enpresak zigortu ditu

Eskola garraioiko 33 enpresa eta elkarte bat zigortu ditu Nafarroako eskola garraioan kartel bat sortzeagatik

SAKANA

Merkatuen eta Lehiaren Nazio Batzordeak eskola garraioiko 33 enpresa eta sektoreko Asociacion Navarra de Empresas de Transporte, ANET, elkarteak zigortu ditu Nafarroan eskola garraioan kartel bat sortzeagatik. Batzordearen arabera, enpresek sare bat sortu zuten Hezkuntza Departamentuaren lehiaketak bantzeko eta garestitzeko. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ikastetxera eramateko eskola garraioiko lehiaketetan izanen luke eragina sareak. Batzordearen arabera, "karteleko enpresek 2013ko abenduaren 1etik 2018ko abenduaren 1era banatu zituzten aukeratzeko ibilbideak, eta txandak eta konpentsazioak ezarri zituzten lan karga eta prezioak ziurtatzeko".

Merkatuen eta Lehiaren Nazio Batzordeak gaineratu duenez, "azpijokoaren existentzia islatuta geratu da, gutxienez, 2013/2014 ikasturterako lizitazioan eta haren luzapenetan eta 2017/2018 ikasturterako lizitazioan. Ikerketaren arabera, jokabide koordinatua izan da, eta, beraz, enpresetako bat lote batera aurkeztu denean, akordioan parte hartu duen beste inork ez du parte hartu, nahiz eta horretarako kaudimen teknikoak izan". Merkaturaren eta Lehiaren Nazio Batzordeak gaineratu duenez, "enpresen eta Aldi Baterako Enpresa Elkarteen artean adostasunik ez balego, enpresek lote berberetan aurkeztuko lituzkete

eskaintzak, kontraturen bat lortzeko aukera gehiago izateko, eta prezioan eta baldintzetan lehiatuko lirerate; azken batean, horrek onura ekarriko lioke azken kontsumitzaileari".

Batzordeak enpresei, guztira, 3.364.738 euroko zigorra jarri die. Horrekin batera, administrazioarekin kontratatzeko debekua ezartzeko prozedura aktibatua du. La Burundesak 437.646 euroko isuna jaso du eta La Estellesak, berriz, 158.959. Bestalde, ANET elkarteak 15.000 euroko isuna jaso du, bere egoitzan bilerak egiteagatik. Merkaturaren eta Lehiaren Nazio Batzordearen arabera, bilera horietan, enpresek beren jarduna koordinatzen zuten.

Nafarroako Kontu Hartzailerak Nagusiak debekatutako jarduerak egon zitezkeela jakinarazi zion Kontsumoaren, Arbitraieraren eta Lehiaren Defentsa Zerbitzuari. Azkenik, gaia Merkaturaren eta Lehiaren Nazio Batzordearen esku gelditu zen. ANETen egungo zuzendaritzak jakinarazi du Espainiako Auzitegi Nazionalan helegitea jartzeko asmoa dutela.

Elkartetik adierazi dutenez, "sekula ez da lehiaren kontrako praktikarik egon. Ikerketak identifikatu dituen gertakariak Nafarroako Gobernuak oker interpretatu zituen, arau hauste gisa". Gaineratu dutenez, isunak "zenbait enpresa desagertzea ekar dezake. Izan ere, martxotik ez da eskola garraioa izan, eta bidaiarien ohiko eta ezohiko garraioan jaitsiera handia izan delako.

Igogailua udaletxerako


Urdiaingo herriaren etxeak udal bulegoaz aparte, hainbat jarduera hartzen dituen auzoa eta udal-liburutegia hartzen ditu bere baitan. Urdiaingo Udalak eraikina irisgarria egiteko igogailua jartzeko pausoak ematen ari da. Horretarako, gobernuak emandako 16.518 euroko dirulaguntza eta baso aprobetxamendu baten salmentakoa erabiliko luke.



ARTXIBOA

Autobiako hesia aldatzen

Sakanako Autobia (A-10) hesitzen ari dira azken asteetan. Joan den urtean, garai berean, Etxarren eta Lakuntza arteko zatian zegoen hesia berri bategatik ordezkatu zuten. Hesi zaharrak metro pasako altuera eta zulo handiak zituen. Egun jartzen ari direna eraikinetako itxiturak egiteko jartzen denaren parekoa da. Ia bi metroko altuera eta sareak zulo txikiak ditu.



Uharteko Udalak San Migel festak bertan behera utzi ditu

COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun krisia dela-eta, Uharteko Arakilgo Udalak festak bertan behera utzi ditu. Udaletik gogorarazi dute, koronabirusaren pandemiak eraginda osasun-alarma indarrean dela eta legez ezarritako neurriak errespetatzea ezinbestekoa dela.

Hori guztia kontuan hartuta, Uharteko Arakilgo Udalak adierazi duenez, "gure herritarren osasuna zaindu eta babestea da gure lehentasuna. Egoera hau ahalik eta lasterren bukatzea nahi dugu eta herri bezala jokatzeak, elkar zainduz, lagundu dezake". Horregatik utzi du udalak festa egitarau ofiziala bertan behera. Hala ere, udal arduradunek adierazi dutenez, "egoera honek aurrera egin ahala eta alarma egoeraren ondorioz zehaztutako baldintzetara egokitutako kultura jarduerak, ekintzak edo plan bereziak adosteko prest gaude. Beti ere, oinarritzko baldintzak errespetatzen diren heinean".

Gutxi falta da ur biltegiko lanak despeditzeko

Zabalgoiena dermioan dago ur biltegi berria, egungoa baino 100 bat metro gorago. Zaharra txiki gelditu zen eta ez zuen araudia betetzen. Ur biltegi berriak 240 metro kubikoko edukiera izanen du, bi putzutuan banatuta.

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA

Gaur egun Irañeta edateko urez hornitzeko erabiltzen den biltegiak ez du nahikoa gaitasunik. Gainera, Nafarroako Gobernuaren egungo araudia ez du betetzen. Irañetako Udalak ur biltegia berritzeko asmoa zuen 2009tik. Baina finantza arloak eragindako krisialdiak eta ondorengoek Irañetako Udala lanei ekiteko nahikoa finantziatorik gabe utzi zuen. Joan den urtean Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren bidez 180.000 euroko dirulaguntza jaso zuen udalak eta aurten ekin die lanei.

Ainhoa Beraza Maiza alkateak azaldu digunez, maiatzean hasi



Ur biltegi berria azken lanak egiten ari dira egun hauetan.

zituzten eraikuntza lanak. Eregi enpresa ari da lan horiek egiten eta azken ukituak besterik ez dira falta. Aurten martxan jarriko dute.

Bestalde, Berazak azaldu duenez, Nafarroako Gobernuaren despopulazioaren aurkako jardueretarako 16.518 euroko dirulaguntza zertara bideratu aztertzen ari dira udalean. Jakinarazi duenez, basoan itxiturak eta garbiketarako egiteko premia dago. Baina oraindik ez dute erabakia hartuta.


Auzolanak

Konfinamenduaren ondoren landaretzak hainbat bide bazter hartuta zituela ikusi zuten irintarrek. Auzolanean bide bazterrek garbitu zituzten. Iturburura eta Urruntzara joateko bidea sasiz garbitzen lan handia egin zuten irintarrek. Jubilatutako izan ziren gehien bat aritu zirenak. Mendingo langaren bat ere konpondu dute. Herrian barna dauden aulkiak bernizatu dituzte ere irintarrek. Ur kontagailuak itxi edo buxatu egiten zirela-eta, "lan handia egin dute horiek aldatzen", jakinarazi du Berazak.


KIT SOLAR

Zure beharretara egokitua

AUTOKONTSUMORAKO EGUZKI-KITA



ISOLATUTAKO EGUZKI-KITA



- Etxebizitzak
- Bordak
- Elkarreak
- Enpresak
- Eraikin publikoak





Santa Luzia Sakanen taldeko edana eragotzi ondoren, gazteek Foru plaza aukeratu zuten kaleko edanean aritzeko.

ALTSASU

Jendea kalean. Kaleko edana. Istiluak. Altsasu, atzera ere, hedabideetan. Horrelakoekin nekatuta dauden herritarrak. Jarrera batzuk ulertzen ez dituzten herritarrak. Eta zeresan ugari. Horixe utzi dute Ez-festek Altsasun.

Festak bertan behera gelditu baziren ere, gazte altsasuarrek festarako gogoia zuten eta Sakanako gainontzeko herrietan ez-festetan egin den bezala, kale-edana antolatu zuten larunbat goizalderako. Santa Luzia Sakanen zen hitzordua. Segurtasun indarrek hitzorduaren berri izan zuten eta COVID-19 gaitzari aurre egiteko neurrien urratzea zelako Udaltzaingoa, Foruzaingoa eta Guardia Civila hara joan ziren. Patruilak agertzearekin batera gazteek hanka egin zuten eta ez zen jakiterik izan zenbat parte hartzaile zeuden. Poliziek "makrobotiloia" bertan behera utzi zutela gaztigatu zuten. Gazteek han utzitako potentzia handiko bozgorailuak, karpa, ekipo elektrogenoa eta edari ugari atzeman zituzten agenteek.

Domeka

Bezperako plana atera ez zenez, eta, atzera ere, dermionan ospakizuna egiten saiatuz gero berriro harrapatuko zituztela pentsatuz, gazteek hurrengo egunetako ez-festetako gaueko ospakizunak herrian bertan egitea erabaki zuten. Domekan

Festek ezohiko ajea utzi dute

Larunbat goizaldean Santa Luzia Sakanen edanean zegoen gazte taldea sakabanatu zuten poliziek. Ordutik, ez-festetako goizalde guztietan kaleko edana Foru plazan egin dute. Igande goizaldean istiluak izan ziren

23:00etarako hasi ziren Foru plazan biltzen, baffle baten musika lagun, kaleko edanean aritzeko. Bildutako hainbatek osasun egoeratik ezarritako neurriak ez zituzten bete.

Guardia Civilak zabaldu zenez, goizaldeko 01:00ak aldera Udaltzaingoa laguntza deia jaso zuen, 70 bat lagunek Foru plazako kalezulo batetik botilak eta objektuak jaurti zizkietelako. Foruzaingoa eta Guardia Civilaren patruilak plazara joan ziren eta festak ospatzen zeuden 300 bat gazterekin opatu ziren. Gazteek azaldu dutenez, ibilgai-

**LARUNBATEAN
DERMIOAN ZEN
HITZORDUA. ONDOREN
KALEKO EDANA
PLAZAN EGIN DA**

luak plazan zitzu bizian sartu ziren eta ia bat baino gehiago harrapatu zuten.

Gazteek korrika alde egin zuten Foru plazatik. Baina izan ziren agenteen ibilgailuei basoak eta botilak bota zizkietenak, aulkiak eta terrazetako mahaiak eta edukiontziak irauli zituztenak, lo-reontzi handiak mugitu zituztenak (elizaren atzeko aldean eta Gartzia Ximenez kalean). Aralar eta Urbasa kaleen artean suak hiru edukiontzi kixkali zituen. Guardia Civilak jakinarazi duenez, gertakarien ondorioz bere ibilgailuetako batek kalteak ditu. Eta gaineratu duenez, gertakarietan ustez parte hartu zuten pertsonak identifikatzeko gestioak egiten hasia da. Javier Ollo Martinez alkateak adierazi duenez, "guztiz onartezinak diren gertakarien aurrean, nik alkate gisa eta altsasuar gizarteak be-

netako lotsa eta haserre sentitzen dugu".

Larunbat goizaldean jazotakoaren ondoren, gazte askok etxean bukatu zuten. Baina etxerako bidean ziren beste hainbat, atzera ere, plazan bat egin eta ospakizunarekin segizuten. Gaur goizaldean ere kaleko edana izan da Foru plazan. Astearteko goizalde guztietan hala gertatu da.

Bezperako gertaerak Altsasu herria, atzera ere, igandean hedabide digitaletan, irrati eta telebistetan eta asteleheneko prentsan agertzeraren eraman zuen. Hainbat hedabidek emandako bertsiok

**PARLAMENTUKO
BOZERAMAILEEN
BATZORDEAK
IZANDAKO ISTILUAK
GAITZETSI DITU**

edo albistearen trataerak ez ziren altsasuar askoren gustukoa izan. Gertaerengatik halako hedabideetan presentzia izateagatik nekea agertu zuten hainbatek. Bestalde, gazteen jarrerak ere altsasuarren artean zeresana sortu du.

Bestelakoak

Nafarroako Gobernuak ostiralean jakinarazi zuen tabernetan, bai barruan, bai kanpoan eserita kontsumitu behar zela eguerditik aurrera. Lehendik ere nahikoa neurri zorrotzak betetzen dituzten tabernarien haserre eragin du erabakiak. Gainera, Arkangoa kaleko bi tabernekin 21:00etan itxi zituzten ateak asteburuan. Kalea estua izanik, toki bila joaten den jendea kalean pilatzen da eta arazoak saiheste aldera hartu zuten erabakia. Bestalde, Foruzaingoa jakinarazi du drogak izateagatik Altsasun bi salaketa jarri dituela asteburuan.

Adierazpenak

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak Altsasun domeka goizaldean izandako istiluak gaitzetsi ditu; "bai eta kalte materialak eta pertsonalak eragiten dituzten antzeko indarkeriazko adierazpenak ere". Horrekin batera, batzordeak berretsi du "herritar guztien banakako erantzukizunerako deia, agintariak ematen dituzten osasun neurriak errespetatzeko, COVID-19aren pandemiari eta bizi dugun osasun krisi larriari aurre egiteko".

Erakunde adierazpena PSNk, Geroa Baik eta Ahal Duguk aurkeztu dute. Harekin bat egin dute Navarra Sumak eta I-Ek. EH Bildu aurreneko puntuan abstenitu egin da eta bigarrenaren alde bozkatu du.

Beltranek ohartarazi duenez, "Nafarroako Segurtasun Indar eta Kidegoen aurkako jazarpen ekintza onartezinen aurrean, egiten duten lanagatik eta ahalgintzagatik gure babesa eta esker ona erakusten jarraituko dugu. Are gehiago Altsasun, Espainiarekin zerikusia duen guztia gorrotatzen duen udalerrri batean. Gorroto, erradikaltasun eta indarkeria hori oraindik ere egoitearen errudunak dira, Altsasun eta Nafarroan gobernatzen dutenak, horretarako baimena ematen eta onartzen dutelako, eta batzuetan animatu ere egiten dutelako, beti ere borroaren alde jarrita biktimen alde baino".



Egiarretako frontoia estaltzeko lanak egiten ari zirenekoa.

Frontoiko lanak despeditzeko finantziario zain

Ezker pareta beharrean eskuin pareta izanen du frontoiak, eta hura ere, berezia, metakrilatozkoa

EGIARRETA

Egiarretako Kontzejuak frontoia estaltzeko lanen aurreneko fasea egin zuen joan den urtean. Teilatua jartzeko 67.873,49 euro ordaindu zituen kontzejuak. Baina aurtengo 14.770,07 euroko aurrekontuarekin, ezinezkoa zaiola lanen bigarren eta azken fasea egitea. Hala jakinarazi du Fermin Izkieta Arbillak, Egiarretako kontzeju buruak. Egiteko gelditzen dena da frontoiko eskuin pareta izanen dena metakrilatoz ixtea. Horrek aukera ematen du frontoian argitasuna sartzeko eta bertatik paisaia ikusteko ere. Izkietak jakinarazi duenez, eskatutako dirulaguntzak ez dizkiete onartu eta Arakilgo Udalarekin harremanetan daude orain. Urte akaberarako edo urte hasierarako despedituta egotea nahi luke.

Uda lehor joan da eta basoan dagoen aziendak non edan iza-

teko hiru baltsa egiteko asmoa zuen Egiarretako Kontzejuak. Izkietak jakinarazi digunez, lanak aurrerago eginen ditugu, dirulaguntza dagoenean. Deialdira aurkeztu ginen eta atzera bota zuten diru gutxiko inbertsioa zelako. Guretako lan garrantzitsua da, kontzejuarendako dirutza da. Baina gobernuarendako txikieria bat". Bestela, aurreikusitako bezala, epaitzak atzeratzeko zuhaitzak markatuta dituzte dagoeneko. Bestetik, herriko lurretan barna Lekunberrirako gasbide proiektuak kezka sortu die kontzeju kideei.

Azkenik, Arakilgo Udalak antolatuta antzinako sagarrondo barietateen txertaketa nola egin ikasteko tailerra egin zen Egiarretan joan den ostiralean. 30 bat pertsona elkartzu ziren. Landareak nola txertatu ikastaro praktikokoan parte hartu zuten lehenik, eta gero landatzera eraman zituzten.

Lehentasunak zehaztu dituzte Arruazun

Batzarraren ondoren, Udalak erabaki du zubiko kalteak konpontzea, herriko etxean berogailua jartzeko azterketa egitea, plazan zurezko egitura duen estalpe baten aurreproiektua egitea eta kontsultategiko pareta margotzea

ARRUAZU

Herrian dauden premiak aztertzeko batzarra egin zuten hila-bete hasieran arbazuarekin. Hainbat proiektu mahai gaineratu zituzten eta Arruazuko Udalak haien artean lehentasunekoak direnak aukeratu zituzten. Eta horien artean dago Arnazko zubia konpontzea. Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, "herri ondoan dagoen Arakil ubelde gaineko zubiak zutabe bat kaltetuta du eta negua heldu aurretik konpondu nahi dugu". Herritik joanda eskuinean dagoen zutabea da kaltetuta dagoena. Ondorioz, hainbat harri erori zaizkio.

Horrekin batera, udalak herriko etxean berogailu sistema jartzea lehentasunekoak jo du. Ovejero argitu duenez, "berogailua izanda, herriko etxean ikastaroak eta bestelakoak egiteko aukera izanen litzateke". Udalak eraikina berriztagarria den energiarekin berotu nahi du eta, horretarako, azterketa egitea lehentasunen artean sartu du.

Bestetik, estreinako, arruazuarrek plazan estalpe bat izan dute. Udaberriarri jarri zuten behin-behineko estalpea eta "oso ongi funtzionatu duela ikusirik, zurezko egitura duen estalpe bat egiteko aurreproiektua egitea



Arruazun jarritako estalpea ostatu ondoan dago, elizarako bidean.

erabaki dugu", jakinarazi du alkateak. Egun Arruazun duten estalpea Lakuntzan plaza berri-arte erabili zena da. Azkenik, arbazuarekin erabaki dute mediku kontsultategiko paretak atontzeko garaia badela ere. Iker Uribe murala pintatuko du bertan, pareta guztia hartuz.

Egindakoak

Lanak ere egin dituzten herrian. Arruazuko Udalak herriko bankuak berri-arte erabili ditu. Zurezko oholak kendu eta PVCkoengatik aldatu ditu. Gainera, zartaturik

zeuden banku batzuk erabat aldatu dituzte. Eta, beharra ikusi zuten, beste banku bat ere jarri dute. Lan horietara 5.200 euro bideratu zituzten. Bestetik, Ovejero esan digunez, gidariak "eroxamar" pasatzen dira Arbazutik eta ibilgailuen abiadura murrizteko eta oinezkoen segurtasuna handitzeko hiru abiadura murriztaile jarri dituzte: Kale Txikin (herri sarreran), Kale Haundin (kiosko parean) eta Bidezahar kalean (ostatua pasatuta). Abiadura murriztaileak jartzeko 750 euro pagatu ditu udalak.

Administrari laguntzailearen lanposturako zerrenda

Udalan sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko, Arakilgo Udalak administrari laguntzailearen lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko deialdia egin du. Hautaprobak eginen dira horretarako. Behin zerrenda osatuta, aukeratua den pertsonak udalan sortzen diren aldi baterako lanak egin beharko ditu.

HIJOS DE GOIKOETXEA EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa

24° takoa

28° takoa

35° takoa

3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763



Ikasleak ikastetxeko patioan. ARTXIBOA

Konfinatutako ikasleak ikasturtearen bigarren asterako

Atakondoa eta Zelandi eskola publikoetakoak eta Iñigo Aritza ikastolakoak dira

IRURTZUN / ALTSASU

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, Haur eta Lehen Hezkuntzako 111 eskola talde konfinatu dira dagoeneko, ikasleen artean koronabirus kasu positiboak agertu direlako. Konfinamendu erabaki asteen zehar jakinarazi dira, eta 111 ikasle taldetako 2.308 ikasleri eragiten diete, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztien %3,15 (61.450 ikasle).

Beraian etxeetan gelditu diren ikasleen artean Sakanako hiru ikastetxeetako 71 ikasle daude: Irurtzungo Atakondoa eskolako

Lehen Hezkuntzako bigarren mailako 17 ikasle (astelehenetik) eta Haur Hezkuntzako lehen mailako, egokitzen gelako, ikasleen erdiak, (13) ikastaldea bitan banatuta baitzuten (asteazkenetik). Irurtzungo ikastetxean guztira 30 dira konfinatutakoak. Altsasuko Zelandi eskola publikoko Lehen Hezkuntzako bigarren mailako 17 ikasle (astelehenetik) eta Burundako Iñigo Aritza ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 24 ikasle (astelehenetik).



DUELA 25 URTE...



Lizarragako eskola itxita

Haur eta gazteak ikasgelara bueltatzeko garaia izanik ere, Lizarragako eskolak atek itxita zituen. Eta ez zituen sekula gehiago irekiko, Nafarroako Gobernuaren plan berriak hala aurreikusten zuelako. Ume falta argudiatu zuen. Ikasleak Etxarri Aranatzera joan ziren. 1994-1995 ikasturtea azkena izan zen eskolako azken ikasturtea. 13 urte ziren klaseak euskaraz ematen zirela. 1936an eraiki zen ikastetxea.



Altsasuko musika eskola. ARTXIBOA

122.263 euro musika eskolendako

Sakanako bost musika eskolek Hezkuntza Departamentuaren ordainketa bi epetan jasoko dute

SAKANA

Irurtzungo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek Hezkuntza Departamentuaren 122.263,69ko dirulaguntza jasoko dute. Harekin herrietako musika eskolen gastuei aurre egiteko aukera izanen dute. Dirulaguntza banatzeko garaian departamentuak ikasle kopurua, aurreko urteko aurrekontua, aurtengo gastuak eta bestelakoak kontuan izateaz aparte, aintzat hartu du ikasturte batetik bestera musika ikasleren batek lanbidetako edo goi mailako ikasketa arautuetan izena eman duen, edo espezialitate jakin batzuetan ikasleak dauden ere.

Hiru finantzaketa bide dituzte udalen musika eskolek: udalak, ikasleak edo gurasoak eta Hezkuntza Departamentua. Teoriak dio eragile bakoitzak aurrekontuaren herena estali behar duela. Baina finantza arloak eragin-

dako krisiak gobernuaren ekarpena txikitu zuen, musika ikasketak udalen eta ikasleen gurasoen bizkar utziz.

Hezkuntza Departamentuak 3 milioi euro banatu ditu 50 musika eskolen artean. Ibarreko bost musika eskolek kopuru horren %4,075 jaso dute.

Dirulaguntzak

Herria	Udalaren ekarpena 2019an	Zenbateko dirulaguntza
Irurtzun	48.258,22	28.181,33
Lakuntza	34.253,59	28.259,32
Etxarri A.	28.784,72	28.077,80
Altsasu	200.000,00	33.107,02
Olatzi	23.140,50	4.638,22
Guztira	334.437,03	122.263,69

Hirugarren aparkalekua

Agorrilaren 12az geroztik erabilgarri daude Erkuden eta Bakea kaleen artean kokatutako aparkaleku publiko berriko 66 tokiak; 3 behar bereziak dituzten pertsonendako dira. Herriko hirugarren aparkaleku publikoak Zumalakarregi plazaren ondoko etxarte zabal bat hartzen du. Guztira 1.800 metro karratu inguruko eremua urbanizatu da.



Jendea lortia zabalgunean. ARTXIBOA

COVID-19aren inpaktua arintzeko 307.063 euro

Udalen gastu handiagoei eta diru sarrera txikiagoei aurre egiteko laguntza eman du gobernuak

SAKANA

COVID-19 gaitzak eragindako pandemia dela-eta, udalek hainbat neurri hartu behar izan zituzten korrika eta presaka. Premiazko neurri horiek aparteko gastua sortu zieten udalei. Udalak laguntzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak udalen artean 10,5 milioi euro banatu ditu.

Emandako dirulaguntza

Udala	Laguntza
Altsasu	134.287,81
Arakil	7.912,91
Arbizu	35.332,67
Arruazu	2.645,73
Bakaiku	4.160,31
Ergoiena	4.155,34
Etxarri Aranatz	26.183,70
Irañeta	3.122,41
Irurtzun	28.859,34
Iturmendi	4.422,32
Lakuntza	14.814,77
Olatzagutia	18.757,97
Uharte Arakil	12.478,00
Urdiain	6.021,41
Ziordia	4.809,18
Sakana	307.963,87

Despopulazioaren aurkako jardueretarako 286.216 euro

Ibarreko 15 udalek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza hori jasoko dute

SAKANA
Nafarroako Gobernuak 4.999.816 euro eman dizkie 10.000 biztanletik beherako 265 udalerriei. Sakanako 15 udalerriek Nafarroako populazioaren %3,09 hartzen dute bere baitan eta foru administrazioaren dirulaguntzaren %5,72 jasoko dute, hau da, 286.216 euro. Diruaren banaketa herrien biztanleriaren arabera egingen da.

Udalek egin ditzaketan inbertsioak honako helburuetakoren batekin bat egin behar dute: lurraldean inpaktua eragitea, jarduerak edo, oro har, biztanleak instalatzen edo mantentzen lagunduz; herritarrei zerbitzuak eskuratzen eta zerbitzu publikoen kalitatea edo hobekuntza mantentzen laguntzea; erronka demografikoan laguntzea, biztanleria gaztea finkatzeko eta erakartzeko edo zahartze aktiborako neurriekin; Herritarren bizitza eta ongizatea; eta ingurunea biziberritzea.

Zehaztapen Askeko Tokiko Inbertsioen Planeko ekarpen horiek bateragarriak izanen dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik emandako beste batzuekin eta 2017-2019ko Tokiko Inbertsioen Planeko ekarpenekin edo udalerrri eta kontzejuen ekonomia eta gizartea suspertzeko kapital-transferentzien ezohiko funtsaren ekarpenekin. Funts hori 25 milioi euroko ezohiko kredituaren bidez sortu da, baina horien guztien baturak ezingo

du egindako inbertsioaren %100 gainditu.

Udalek diru horrekin egin nahi dituzten lanak aurtan egin behar dituzte, Zehaztapen Libreko Tokiko Inbertsioen Planaren esparruan.

Emandako dirulaguntza

Udala	Biztanleria	Dirulaguntza
Altsasu	7.443	36.000
Arañil	933	16.518
Arbizu	1.104	16.518
Arruazu	110	16.518
Bakaiku	362	16.518
Ergoiena	372	16.518
Etxarri A.	2.483	26.000
Irañeta	172	16.518
Irurtzun	2.233	26.000
Iturmendi	403	16.518
Lakuntza	1.279	16.518
Olazti	1.489	16.518
Uharte A.	805	16.518
Urdiain	653	16.518
Ziordia	348	16.518
Sakana	20.189	286.216



Ur sareko arazoak konpontzeko lanak.

Ur sareko arazoak konpontzen hasiak

Herenegun hasi eta hiru hilabete barru despedituko dira. Lanen helburua da: uraren presioa kontrolatzea, ur kontsumoa eremuka kontrolatzeko kontagailuak jartzea eta Lizarragabengoako ur hornidura hobetzeko by-passa jartzea

ETXARRI ARANATZ

Uraren behe horniduran dauden arazoak konpontzeko lanak hasi ditu Construcciones Noveleta enpresak. Aurreikusitako lan guztiek 232.485,64 euroko aurrekontua izanen dute. Silvia Marañon Chasco alkateak azaldu duenez, "hodieta urak duen presioa kontrolatzeko erregulatuak jarriko dira. Horrela lortuko da ura etxeetara eta enpresetara presio egokiarekin iristea". Tren geltoki inguruko auzoan jarriko dira halako erregulatuak.

Bestalde, alkateak jakinarazi du ur kontagailu berriak jarriko dituztela bi industrialdeetan, nekazaritza poligonoan

eta tren geltoki ondoko auzoan ere. Kontagailu horien bidez udalak ur kontsumoa eremuka kontrolatzeko aukera izanen du. Eta Marañonek gaineratu duenez, "uraren presioaren kontrolarekin ur ihes batzuk saihestuko dira, eta ur kontagailu berriekin errazago izanen da haiek atzematea.

Langileek egin beharrekoen artean dago by-pass bat jartzea. "Zubi bat da. Hainbat zirkuituren arteko lotura egiten da eta alde batera edo bestera ireki dezakezu. Horrela, Lizarragabengoako ur hornidura hobetuko da". Eta kontzejua aipatuta, Marañonek azaldu duenez, agorriaren 8tik joan den astera

arte hodi baten bidez hornitu behar izan dute herria. "Lizarragabengoako hornidura sarean ur ihes batzuk zeuden eta haiek konpondu bitartean horrela bermatu dugu ura".

Dirulaguntza

Etxarri Aranazko Udalak Nafarroako Gobernuaren 26.000 euroko dirulaguntza jaso du despopulazioaren kontrako neurriak hartzeko. Marañonek argitu duenez, "hainbat proiektu ditugu mahai gainean, baina oraindik ez dakigu zeintzuk gauzatuko diren. Nafarroako Gobernuaren oniritzia behar dugu, laguntza jasotzeko jarri dituen baldintzak bete behar baitira".

Burunda frontoia araudira egokitze lanak egingen dira

Altsasuko Udalak lanak emateko deialdia egin du. 91.581,64 euroko inbertsioa egingen du udalak frontoian

ALTSASU

Burunda frontoia 1954ko irailaren 14an mustu zen. Baina ez du irekitzeko lizentziarik. Irregularitasun larri hori lehenbailehen konpondu nahi du Altsasuko Udalak. Hori lortzeko eta, bide

batez, Nafarroako Gobernuaren Babes Zibilaren eskakizuna bete ahal izateko, Altsasuko Udalak zenbait aldaketa egingen ditu erakinean. Esaterako, harmailetak pasabideak edo ebakuazio bideak zabaldu egin behar dira.

Horretarako, harmaila erdian dauden bideetako bi aldeetako ilara guztietako aulki bana kenduko da, eta ertzetako bideetan beste bat. Horrekin batera, ate bat ere aldatuko dute.


Aldi berean, kantxaren ondoko aldean aldagela edo komun egokiturik ez dago. Irisgarritasun-araudira egokitze arkitectura oztipoak kenduko ditu udalak. Horrekin batera, kirola egiteko espazioa ere hobetu nahi du Altsasuko Udalak. Horregatik kantxako zoladura leunduko

du. Asfalto natural urtukoa da eta pilotari punpa arraroak eginarazten dizkion irregularitasunak ditu.

Altsasuko Udalak lanak emateko deialdia egingo du. Behin enpresa batek haiek eskuratu eta gero 30 egun izanen ditu egin beharreko guztiak behar bezala despeditzeko.

885

Horiek dira Burunda frontoian gaur egun sar daitezkeen pertsonak.




Aldakinen I+G proiektu batek laguntza jaso du

Minbiziaren toxikotasuna eta errepikapena iragartzeko adimen artifizialeko plataforma sortu nahi dute. Bestalde, Dinabideko aholkulari den Hirudi Sistemak 3D enpresak ere proiektu baterako finantziazioa lortu du

IRURTZUN / ALTSASU

Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuak Ikerketa eta Garapenerako (I+G) 13 milioi euroko dirulaguntza ebatzi du. Adimen artifizialaren eta robotikoaren alorrean, Aldakin enpresa altsasuarra Automozioa eta Mekatronika I+G+B Fundazioaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta Datbowmovalsys, Cistec eta Eversens enprekin batera aurkeztu zen deialdira eta ReInforce proiekturako 813.349 euro lortu dituzte. Minbiziaren toxikotasuna eta errepikapena iragartzeko adimen artifizialeko plataforma sortu nahi dute.

Departamentuaren beste dirulaguntza bat jaso duen proiektua 3D3B-AVATAR da. Hartan parte hartzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Automozioa eta Mekatronika I+G+B Fundazioak, Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioak, Miguel Servet Fundazioak eta, Iruña Tecnologías de Automatización,



Minbizi iragartzeko adimen artifizialeko plataforma sortu nahi dute. ALDAKIN

One Voxel eta Hirudi Sistemak 3D enpresek. Azken hori Sakanako Garapen Agentziak sustatu duen Dinabide, digitaliziorako guneko aholkulari Mikel Arbeloarena da. Haien asmoa da giza hesi hematoentzefali-

koaren hiru dimentsioetako eredu bat sortzea, Alzheimer gaixotasuna duen paziente baten ezaugarri estrukturalak, funtzionalak eta fluidodinamikoak erreproduzitzeko. 1.299.279 euroko laguntza jaso dute.



ALTSASUKOAK ASKE PLATAFORMA

Auziko kontagailua eraberrituta

Garilaren 3an, kartzelan 1328 egun preso egin ondoren 3. graduarekin atera ziren kartzelatik Adur, Jokin eta Oihan. Udaletxe parean dagoen kontagailuak egun hartan gelditu zuen bere zenbaketa, 1328an. Eta ostiralera arte horrela egon da. Altsasukoak Aske herri

plataformak zenbaketaren definizioa aldatu beharra ikusi zuen Adur, Jokin eta Oihan kalera ateratzean. Beraz, kartzelatutako egunen ordez, auzipetuak zigorpean dauden egunak kontatzera pasa da. Aldaketa eginda, udaletxe parean jarri zuten ostiralean.



Sei saio izanen dira hausnarketa eta ekintza feministarako. ARTXIBOA

Emakumezko gazteendako taupada feministak

Aurrenekoa Altsasuko Otadia aterpetxean larunbatean, 10:00etatik 13:00etara. 14 eta 25 urte artekoendako da

SAKANA

Nafarroako Berdintasun Institutuak hausnarketa eta ekintza feministarako bost gune sortuko ditu ikasturte honetan, horietako bat Altsasun. 14 eta 25 urte arteko emakumezkoek zuzendutako espazioak dira horiek eta haietan emakumezkoen errealitateari buruzko gaitasun kritikoa sustatu nahi da, genero ikuspegi kontuan hartuta. Aldi berean, mikromatxismoei aurre egiteko estrategiak garatu nahi dira gune horren bidez. Emakumezkoen arteko elkartasuna lantzeaz aparte, desberdintasunen aurrean jarrera aktiboa sustatu nahi da. Hala, parte hartzaileak beraien bizitzak gidatzeko gai izan daitezen eta gizartea eraldatzeko eragile izan daitezen.

Saioak gidatzeaz Emagin elkarte Kattalin Artola arduratu da. Nafarroako Berdintasun Institutuaren programa da, eta

antolaketa ibarreko Berdintasun Zerbitzuen laguntza izan du. Parte hartzeko izena eman behar da. Horretarako, Nafarroako Berdintasun Institutuak Internet bidezko aukera lehenetsi du ([labureus/oKXSX](mailto:labureus@oKXSX)).

Saioak

- 1. Zer da patriarkatua?** Maskulinoa eta feminoia eraiki eta deseraiki.
- 2. Bortizkeria anitzak.** Indarkeria ez da kolpeak soilik.
- 3. Beldurrik ez!** Jarrera ere garrantzitsua delako.
- 4. Aske, polita eta eroa.** Filmetako amodioa ez delako benetakoa.
- 5. Elkarrekin sortuz.** Begiratzen ikasi behar dugu.
- 6. Piztu!** Eraiki egin behar da.

Ospa mugimenduak 92 kontrol zenbatu ditu lau hilabetetan

Urteko bigarren lau hilabetekoak 92 kontrol utzi ditu. Hala jakinarazi du errepresioaren kontrako Ospa mugimenduak. Maiatzaren 1etik agorrilaren 31ra arte Guardia Civilak jarri ditu kontrol gehien, 57, Foruzaingoarenak 35 izan dira.

Kontrolen kokapenari dagokionez, errepresioaren kontrako Ospa mugimenduko kideek azal-

du dutenez, kontrol kopuru handiena Iruñerako irteeran izan da, 39. Altsasuko kaleetan eta bestelakoetan jarritako 38 kontrol zenbatu dituzte eta hamaikana kontrol, berriz, Txunkaiko Gasteizerako irteeran eta Donostiarako irteeran.

Urteko aurreneko lehen lau hilabeteetan errepresioaren kontrako mugimenduak 102 kontrol zenbatu zituen. Urteko bigarren lau hilabetekoan zebaitutakoekin batera, guztira, 194 kontrol dira Altsasun zenbatutakoak aurrean.



Sakanako informazio erabilgarria, azkarra, gertukoa eta euskaraz
Sakanako euskalduntze prozesuan euskarri garrantzitsua
Sakanako ekonomiaren bultzatzailea (bazkide txartela/komertzioak)

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak, Euskal Herrira
elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
elkarretaratzea.

20:00etan, udaletxearen parean.

ETXARRI ARANATZ Euskaraldia.
Txor Txor bakarrizketa Xabier
Artiedarekin.

20:30etan, plazan.

LARUNBATA 19

ALTSASU Gazteok
askatasunerantz martxa!
Altsasu-Bargagain-Altsasu
martxa egingen dute Goierriko
eta Sakanako Ernaik.

9:30ean, Foru plazan.

ALTSASU Taupada. Hausnarketa
eta ekintza feiminstarako guneak.

14 eta 25 urte bitarteko
emakumeendako. Izena ematea:
Whatsapp bidez 689026106.
10:00etatik 13:00etara, Otadia
aterpetxean.

ALTSASU Iortia Antzerki
Tailerraren *Ya es la hora*
antzezlan.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 20

ALTSASU Eloko higara
ibilaldia egingen du Altsasuko
Mendigoizaleak taldeak.

Antolatzailea: Javier Senar.
8:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Marutegiko gaztelura

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

Padre no hay más que uno 2
gaurkotasunezko filma
Osteguna 24: 19:00.

40 km-ko ibilbidea egingen du
Barranka BTT taldeak.

09:00etan, Zumalakarregi plazan.

OLAZTI Yarleku konpainiaren
Etzerik txikiena antzezlan.

17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Amak
taldearen kontzertua.

19:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak,
Euskal Herrira elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta
Pentsiodunen Koordinakundearen
kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen parean.



IKER URIBE

IRURTZUN Dorisen marrazkiak. Irailean eta
urrian.

Pikuxar euskal txokoan.



YOLANDA ARNEO

ALTSASU Yolanda Arnedoren tailerraren erakusketa.
Irailaren 18tik urriaren 2ra. Iortia kultur guneko
erakusketa gelan.

Esna zaitez
Beleixe
irratiaarekin!



EGUN ON SAKANA

goizero

10:00-12:00

107.3 FM

beleixe

D
N DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROK

Oinarrizko gaitasun digitalak: Internet bidezko tramiteak eta konezioak egiten ikastea, Nafar Lansaren lan eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen zuzendutako ikastaroa antolatuta du. Oinarrizko gaitasun digitalak 1, hileren 21etik 25 era, 08:00etatik 13:00etara, Altsasuko kultur etxean.

Landareei buruzko ikastaroa irailaren 28an eta 30ean Gorosti elkarteak antolatuta, "herritarren zientzia" deritzana bultzatu nahian. Saiok praktikak izan dira, aire zabalean, Etxarri Aranatzan eta Lakuntzan, 17:00etatik 20:00etara, dohainik, eta gehieneko pertsona kopurua egongo denez, aurretik izena eman behar da: 630 591 703 telefonoan edo frebakaikoa@gmail.com e-postan.

Olaztiko Kirol ikastaroetan izena emateko epea gaur amaitzen da: Urrian hasiko diren Indoor zikloa, yoga, pilates, gimnasia tonifikazioa eta kangoo ikastaroetara joan nahi baduzu gaur eman izena, Erburua kiroldegian edo 948 564 512 tfnora deituz.

Arakilgo ikastaro eskaintza: Yoga (asteleheneretan eta ostegunetan 9:30-11:00 edo/eta 18:30-20:00), Soinketa (asteartetan eta ostegunetan 18:00 - 19:00), Zinemaren hastapenak (Astearteetan 18:30-20:30), Eskulanak (Asteleheneretan 10:30-12:30), Argazkilaritza eta Astelehen zioriontsuak. Irizpideak (www.arakil.net weborrian) eta segurtasun protokoloa onartzea derigorrezkoa izanen da. Izena ematea irailaren 29a baino lehen Udaletxean (948 500 101) edo WhatsAppez (634 584 226).

Altsasuko Udaleren ikastaro eskaintza: Antzerki tailerra: Iortian 948 567 272 iortia@kultura.net (astearteetan 20:00-22:00), Lentzeria (as. edo az. 16:30-18:30), Eho ziriak (az. 16:30-18:30) eta Joskintza (al. 16:00-18:00) Gure etxean 948 564 823 miraola@altsasu.net, Irakurketa klubak Liburutegian 948 564 834 bibilial@navarra.es, Kafekompondu (Urriko eta azaroko as. 17:30-19:30) Gure etxean 639 900 336

sakana@cederna.es. Tarifak eroldaren arabera izango dira, www.altsasu.net webgunean ikusgai. Izen emateak, aipatutako zerbitzu bakoitzean, irailaren 22ra arte.

GALDUTAKOAK

Zilarrezko pultsera, urdin turkesazko esmalteak dituena, galdu zen Etxarri Aranazko plazan agorri-laren 30ean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu 619 916 634 tfnora.

LEHIAKETA

Gazteentzako zientzia eta teknoko bideo-lehiaketa Elhuyarrek antolatuta: 12-18 urteko gazteei zuzendua eta bakarka edo taldeka (4 gehienez) parte hartu daiteke. Saria Futuroscopem parkerako 2 eguneko bidaiak. Parte hartzeko baldintzak eta informazioa www.zientzia-azoka.elhuyar.eus weborrian. Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da.

Egile berriendako euskarazko XXX. Literatur Lehiaketa Iruñean: Lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da poesia eta narrazio modalitateetan. Aurten lanak online www.irunakultura.eus helbidean, edo paperean Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale nagusia, 2) aurkez daitezke.

OHARRAK

Arbizuko Gazte txokoa 2020/21 ikasturtean: Urritik maiatzera bitartean, 11-14 urte bitarteko gazteei zuzendua, begiraleen ardurapean. Urte osoko kuota 10 euro seme batentzat, 12 euro birentzat eta 14 euro hirurentzat izanen dira. Izena emateko epea irailaren 25ean amaitzen da udaletxean, 948 460 017 tfnoan edo info@arbizu.eus helbidera idatziz.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa Egutegia: Irailak 18 eta 21, Etxarri Aranatz; irailak 22 eta 23, Iturmendi; irailak 24 eta 25, Altsasu; irailak 28, Olatzagutia eta irailak, 29 Ziordia.

ETB1ko produktora Altsasu Auzian oinarritutako telesailaren grabaketarako boluntario bila dabil: 20 eta 60 urte bitarteko gizon eta emakumeak konkretuki. Castingean

parte hartu nahi baduzu castingaltsasu@gmail.com epostara zure datuak eta argazkia bidali. Filmaketa irailaren 21etik urriaren 24ra izanen da.

Xaloe Telebista Euskal City saio berrirako jende bila gabilta: Saio bakoitzaren helburua euskara sustatzea da eta Nafarroan dauden egoera desberdinak plazaratu nahi dira. Elkarriketatzaile bat eta bi gonbidatu, zeinak herri desberdinetakoak izanik beren herriko euskararen egoerari buruz, COVID-19aren eragina buruz eta hemendik aurrerako etorkizunari buruz hitz egingo duten. Norbait prest egongo balitz, gurekin harremanetan jarri xaloamagazina@gmail.com helbidera idatziz, 948 59 05 57 / 689 093 181 / 644 834 740 tfnoetara deituz. Animatu eta parte hartu!

Arropa bilketa: Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du asteleheneretan, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sarzea.

Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri martxan: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernu Kanpoko Erakundea material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiene produktuak, haur-oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa. Altsasuko Frontoiko Zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajeran. Poltsak ibita eraman behar dira, eta astebete itxita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotakoa, edukiontzietan.

Aralarko santutegian bisita gidatuak: San Migel santutegia ezagutzeko bisita gidatua egin daiteke. Izena emateko hots egin 948 373 013 edo miguelexcelsis@gmail.com www.iragarkilaburak.eus



Mikel Zabalza Hernandez

(2020ko abuztuaren 12an hil zen Suitzan)

Zure poztasuna ez dugu inoiz ahaztuko. Bizitzari irri batekin begiratzen erakutsi diguzu. Uharteko zure lagunek ezingo zaitugu ahaztu.


HERIOTZAK

- Igor Rosa Flores, uztailaren 30ean Arbizun
- Josefina Berastegi Leitza, irailaren 4an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 18



Hodeiak gailenduko dira eta zaparradak eta ekaitzen bat bota dezake. Temperatura maximoak, jaitziko diren arren, nahikoa altuak izango dira.

Igandea, 20




Eguraldi nahasia izango da, lainotuta egongo da eta noizbehinka euria egin lezake. Hego haizeak gogor jo lezake momentu batzuetan.

Larunbata, 19



Hego haizearen ondorioz eguna lainotuta egongo da eta euri pixka bat egin lezake. Tenperaturak zertxobait jaitziko dira.

Astelehena, 21



Euria egiteko probabilitatea handiagoa izango da. Gainera, tenperaturek beherako joera hartuko dute.

ESKELA



Iñaki Zurriarain Egia



Amaia Zurriarain Maritxalar irakaslearen aita

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritzeta ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6 ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Joanes Bakaikoa Binakakoa erabaki ondoren hastekoa den Buruz Burukoa prestatzen murgilduta dago. UTZITAKOIA

"Pilotarendako onena nahi dugu; gure jarrera elkarlanekoa da"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI BAIKO PILOTAKO PILOTARIA

PILOTA Baikoko pilotari gehienek agiri bat sinatu dute euren egoera "jasanezina" dela aitortuz eta enpresari jarrera aldaketa eskatuz. Batuta daude, elkarlanerako jarrerarekin

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Baiko pilota enpresako pilotari gehien-gehienek agerraldia egin zuten asteartean Tolosako Beotibarren, eta pilota munduko bazterrak astindu zituzten euren egoera "jasanezina" dela aitortu zutenean. Oinatz Bengoetxeak irakurri zuen Baikoko pilotari gehienek, Aimar Olaizolak, Mikel Urrutikoetxeak eta Ander Imazek izan ezik, sinatu duten agiria. Sinatzaileen artean Joanes Bakaikoa Satrustegi pilotari etxarriarra dago.

Baikoko pilotarien astearteko agerraldiak zeresan handia eman du; bazterrak astindu dituzue.

Bai, egia esan gure egoera publiko egitea oso gutxitan gertatu izan da eta hala tokatu zen asteartean.

"PILOTARIEK BATUTA EGOTEA ERABAKI GENUEN; KOLEKTIBO BAT BEZALA ARI GARA"

Zuk ezin izan zenuen egon entrenamendua zenuelako, baina sinatzaileen artean zaude, ezta?

Bai, ezin izan nuen Tolosan entrenamendua jarri zidatelako, baina sinatzailea naiz.

Laburbilduz, Oinatzek esan zuen Baikoko pilotarien egoera "jasanezina" dela, enpresak pilotarietako hartutako zenbait erabaki "atsekabe" bizi izan dituzuela eta batez ere Asegarce desagertu eta Baiko enpresa sortu zenean hasi zela giro nahasi hau, Jose Ramon Garaik zuzendaritza hartu zuenetik, eta

martxotik, COVID-19 birusaren pandemiatik, egoerak okerrera egin duela. Victorri eta Eskirozi kontratua berritu ez izanarekin edalontziak gainezka egin zuela gaineratu zuen Oinatzek, beste zenbait erabakirekin batera. Finean enpresari jarrera aldaketa bat eskatzen diozue pilotarietako hartutako zenbait erabaki birpentsatzea, egoera guztia bideratzeko. Aldaketarik ez bada go mobilizazioak egiteko prest egongo zaretela azaldu zuen Bengoetxeak, eta pilotari profesionalen elkarte bat sortzeko beharra aipatu zuen.

Hala izan da, gertatutakoaren laburpen ona da. Gertakari konkretuek asko hitz egin da, eta Oinatzek azalpen guztiak eman zituen asteartean, gure artean adostutakoak.

Normalean pilotariak oso diskretuak zarete, arazoak etxean konponztearen aldekoak, eta hortaz, arazoak publiko egitea asko hausnartutako pausoa izango zen.

Pilotari guztiak gure artean hitz egiteko momentua izan da hau. Egoera nahiko berezia izan da; COVID-19-aren ondorioz egoera berria izan dugu, inoiz ez da holako gauzarik gertatu, eta egoera honetan guztiak batuta egotea oso garrantzitsua da, bakoitzak besteari laguntzea. Horrela, pilotariok batuta egotea erabaki genuen, eta enpresari uneoro eta modu onean, gure lankidetzaz azaltzea, gure ideiak adieraziz.

Hau guztia nola bizi izan duzue? Lasaitua hartu duzue zuen egoera publikoa egiterakoan?

Aipatu dudana bezala, denbora honetan guztian guztiak hitz egiten egon gara eta erabakiak batera hartzen. Guztiok pentsatzen genuena esan dugu, eta, azkenean guztion artean erabaki bat hartzen saiatu gara. Batzuk gauza bat pentsatzen zuten, hori zela hobereana, beste batzuen ustez beste gauza bat zen hobe, eta azkenean gehiengoak zioenaren alde egin dugu. Kolektibo bat bezala funtzionatzen ari gara, denak batuta. Egoera zaila dela badakigu, denontzat, eta gauzak ahalik eta hobekien egiten saiatzen ari gara.

"GUZTIOK PENTSATZEN GENUENA ESAN DUGU ETA GEHIENGOAK ZIOENAREN ALDE EGIN DUGU"

Asteartekoaren ondoren enpresaren aldetik erantzunik izan duzue? Ez, oraindik ez.

Bitartean pilotarietako ohiko martxan jarraitzen duzue: entrenatu, partidak jokatu... eta, bitartean, hausnarketarako tarteak utzi duzue eta elkarlanerako prest zaude.

Bai, horixe da. Guk normal jarraitzen dugu; gure lana da, gure betebeharra, eta horretan segituko dugu, lanean. Hemendik aurrera zer gertatzen den aztertuko dugu eta zer egin erabakiko dugu, baina lanean, ahalik eta hobekien arituko gara.

Zuen mezua barra-barra zabaldu zen sare sozialetan eta bestelako komunikabideetan. Elkartasun mezu ugari jaso dituzue, eta zuen ausardia goraipatu du katedrak. Zuek ere babes hori sentitu duzue?

Bai, eta eskertzen da. Guk, ez dugu gauza txarrik nahi, pilotarendako onena nahi dugu. Ez gara gauza txarrik eskatzen ari; badakigu egoera zaila dela, baina gauzak ahalik eta hobekien egin nahi ditugu; denontzat onena nahi dugu, egia esan.

Enpresari pilota aurrera ateratzeko duen bokazioa aitortu zenioten agerraldian, eta garai zail hauetan aurrera egiteko hartutako eronka. Izan ere, pilotariak enpresarik gabe ere ezin zarete bizi, eta hori ere nabarmendu zenuten.

Zalantzarik gabe. Gu ez gara egoskorrik, badakigu zein egoeran gauden eta denon artean lagundu nahi dugu, egoera ahalik eta hobekien joan dadin. Hori da gure helburua, gauzak ahalik eta hobekien egitea eta bakoitzak bere aldetik ahal duena jartzea.

Oinatz Bengoetxeak esan zuen sarritan "babesgabe" sentitzen zaretela pilotariak. Berak aipatu zuenez, pilotarietako batu beharra duzue, pilota profesionalen subjekturik ahulenak zaretelako, baina, aldi berean, garrantzitsuenak, eta pilotariak babesteko ezinbestekoa ikusten duzue pilotari profesionalen elkarteak sortzea. Zuk ere hala uste duzue?

Azken finean denok hartutako erabakiak dira Oinatzek asteartean adierazitakoak; denon artean erabaki dugu hori. Hemendik aurrera, pixkanaka, egunero hitz eginez ikusiko dugu zein erabaki hartu; gure aldetik erabaki onena hartzen saiatuko gara, denon artean.

Bestalde, zer moduzkoa izan da pilotara buelta COVID19 birusaren agerpenaren ondorengo egoera

berezi honetan? Ohitzen ari al zarete normaltasun berri honetara?

Ezin gara kexatu; gutxienez jokatzen ari gara. Ekainean zailtzak genituen, jokatzen ere hasi egingo ginen edo ez, eta azkenean udan partida batzuk jokatu dira, gaitzerdi. Alde horretatik pozik, eta espero dugu hemendik aurrera egoera okertu beharrean, ea pixkanaka hobetzen den.

Masters CaixaBank torneoa bukatuta Binakako Pilota Txapelketa jokatuko da, baina aurrera begiratu zer dio enpresak?

Orain Mastersa bukatu ondoren Binakakoaren bukaera jokatuko da eta esan digute Buruz Burukoa berehala hasiko dela eta azkarra izango dela. Ez dakit zehazki zein formatutan jokatuko den, zein mailatan, hori ez didate esan, esan didatena da Buruz Burukorako prestatzeko eta horretan ari naiz buru-belarri. Aurten berezia izango da eta gogotsu nago.

Buruz Burukorako zein esperantza duzu?

Ongi aritzea espero dut. Ongi sentitzen naiz, sasoiko, baina gero ikusiko da partidetan zer moduz nabilen. Baina gogotsu nago.

Zer moduzkoa da frontoietako giroa?

Arraroa, inoiz bizi izan ez dugun bezalakoa. Ohituta gaude beti frontoia beteta egotera, sekulako festa giroarekin eta jende gazte askorekin. Eta orain ez. Baina gutxienez frontoia ez dago hutsik, pilotazale batzuk joaten dira, eta honen guztiaren alde ona begiratu behar da.

Pilota zaleek esaten dizuetena hobeto entzungo duzue orain, ez?

Bai (kar, kar...). Jende gaztea festa giroan egoten zeneko gauzak ez dira entzuten, baina besteak bai.

Uste duzu enpresak ongi erantzungo duela? Baloreen jarriko dituela zuek eskatutakoak eta halako adostasun bat lortuko duzuela?

Ez dakit, baina baietz espero dut. Gure helburua ez da inolako momentuan enpresaren kontra jotzea; gure helburua kolaboratzea da, alde bakoitzak bere aldetik jartzea. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

"EGOERA ZAILA DELA BADAKIGU, ETA GAUZAK AHALIK ETA HOBETIKIEN EGITEN SAIAITZEN ARI GARA"



Irurtzungo Pilota Txapelketako finalistak, sariekin, Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari Miguel Pozueta alboan dutela. IRURTZUN

Irurtzungo hiru finalek emaitza berbera izan zuten

PILOTA Promesetan Bustince eta Azpiroz gailendu ziren, seniorren 3. eta 4. postuan Olló eta Aldabe eta final handian Espinal eta Arbizu, guztiak 22 eta 12 irabazita. Gaurtik aurrera Espainiako Kluben Arteko azken fasea jokatuko du Irurtzune

COVID-19 birusaren agerpenetik Nafarroan jokatu den pilota txapelketa bakarra izan da 28. Irurtzun Pilota Txapelketa. Uztailean hasi zen eta larunbatean jokatu ziren final handiak, Biaizpe pilotalekuan. Giro polita zegoen Biaizpe pilotalekuan eta jendea poliki bildu zen, beharrezko segurtasun neurriak hartuta. "Oso final politak izan ziren, eta sekulako giro ona zegoen. COVID-19 dela eta, 212 pertsonendako tokia zegoen eta 190 pertsona inguru bilduko ginen. Gustura, arratsalde pilotazale polita izan zen" azaldu du Irurtzun Pilota Elkarteko presidente Miguel Berazak.

Promesetan, Bustince eta Azpiroz favoritoak gailendu ziren

Final ederrak izan ziren. Bitxikeria moduan, jokatu ziren hiru partidak emaitza berberarekin despeditu ziren: 22 eta 12. Promesen mailan, Bustince eta Azpiroz Iriarteren eta Lizarragaren kontra aritu ziren. Lehenak ziren favoritoak eta ez zuten hutsu egin.

Paretsu hasi zen partida, baina Azpiroz bikain aritu zen atzeko koadroetan, dominatu egin zuen, eta horrek Bustincerik jokaldiak behar bezala errematatzeko aukera eman zion. "Presioa eta nerbioek eragina izan zuten Adur Lizarragarengan, gazteagoa izaki eta, azkenean, Bustince eta Azpirozek irabazi zuten. Partida oso polita izan zen" dio Berazak.

Seniorretan, sorpresak

Senior mailan, lehenik eta behin 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatu zen. Olló eta Aldabe izan zituzten aurkari Olaetxeak eta Bergerak. Olaetxea eta Bergera ziren, akaso, favoritoak. Hala ere, partida gogor eta lehiatua, Olló eta Aldabek zezena adarretatik hartu eta gutxika abantaila lortzen hasi ziren, azkenean 22 eta 12 gailendu arte. Ikuskizun bikaina izan zen. "Egia esan, sorpresa eman zuten Olló eta Aldabek. Partida oso lehiatua izan zen, gogorra, baina tantoak Ollóren eta Aldaberen alde eror-

tzen hasi ziren. Gehiago asmatu zuten" azaldu du Berazak.

Bukatzean, Irurtzungo Torneoko seniorren final handia jokatu zen. Espinal eta Aaron Arbizu, batetik, eta Retegi Bi eta Azanza, bestetik. Bi biko ikusgarri denboraldiko lehen torneoko txapela jantzi nahian. Retegi Bik eta Azanzak biko indartsua osatzen dute, baina Aaron Arbizu etxarriarrak atzeko koadroak dominatzen baditu, arerioak bezain arriskutsuak dira, edo gehiago. Eta hori izan zen larunbatean Irurtzunen gertatu zena, Arbizu atzealdean gailendu zen eta, Espinalen laguntzarekin, Retegi Biren eta Azanzaren gainetik pasa ziren; 22 eta 12 irabazi eta Irurtzungo txapela jantzi zuten.

"GIRO PILOTAZALE POLITA ZEGOEN, ETA HIRU FINALAK OSO POLITAK IZAN ZIREN" MIGUEL BERAZA

"Arbizu bikain aritu zen atzean, eta Espinali koadro alaietan guztia atera zitzaion ongi. Aldiz, Retegi Bi eta Azanza, favoritoak zirenak, atzean ibili ziren, erre-molkean. Espinalak eta Arbizuk sekulako partida egin zuten eta merezita jantzi zuten txapela" gaineratu du Berazak.

Irurtzune Espainiako Kluben Arteko Txapelketako azken fasea jokatuko du asteburuan

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko Txapelketako azken fasea jokatuko du Irurtzune, Labriten. "Gaur, ostirala, Espainiako Kluben Arteko Txapelketako finalerdia jokatuko ditugu, Labriten, 17:00etatik aurrera. Banakako Txapelketan San Cosme (Burgos) dugu arerio, eta, Binakakoan, Uhartte Iruñea. Aurrera eginez gero, finalak igande goizean jokatuko dira, Labriten" aipatu du Berazak.

Banakakoan Julen Retegi, Olano edo Armendarizek jokatuko dute orain arte, eta horietako bat ariko da. Binakakoan Ongai-Olaetxea edo Bergera-Arbil ibili dira lehian, eta lau pilotari horiekin osatutako bikote batek ordezkatu du Irurtzun. "Printzipioz, bai Banakakoan eta baita Binakakoan ere, finalerdi oso paretsuak aurreikusten dira. Gainontzeko pilotariak jokoz nola ibiliko diren ez dakigu, hilabete hauetan ia ez baita lehiaketarik izan. Ikusiko da" nabarmendu du Irurtzun klubeko presidentek.

Espainiako Kluben Artekoa bukatuta, aurki, 15 egunetan, Nafarroako Banakako Pilota Txapelketa hasiko da eta bertan lehiatuko dira Irurtzun klubeko pilotariak. Eta azaroaren 7an, goizeko 10:30ean Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionalerdi finala jokatuko du Irurtzune, Zumarragan. Oraindik ez daki nor izango duen arerio, Lemoak eta Ultzamako Buruzgainek oraindik finalerdi jokatuko gabe dutelako.

Txikien pilota eskolen hasiera urriaren 1era atzeratu dute

Hasiera batean irailaren 14tik aurrera ziren hastekoak kategoria txikien pilota eskolak, baina federazioetik urriaren 1era arte atzeratu dute hasiera hori. "Pandemiaren egoeraren arabera aldaketak egon daitezkeelakoan nago, eta ikusiko dugu nola ibiltzen garen" adierazi du Berazak.



Kintanren iritiz aurten ez da behar bezalako denborarik egon txapelketak behar bezala prestatzeko. GRUPOMPLEO PAMPLONA ATLETICO

"Txapelketan ez nuen normalean izaten dudan konfiantza izan"

JUNE KINTANA LARRAZA DISKO JAURTITZAILEA

DISKO JAURTIKETA Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutuetan ez zuela bere benetako maila eman dio bakaikuarrak, baina hala ere zilarrezko domina jantzi zuen

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Asteburuan Aire Zabaleko Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutuak jokatu ziren Madril. June Kintana (Grupompleo Pamplona Atlético) disko jaurtiketan aritu zen. Bakaikuarra ez zen ohi bezala ibili, baina hala ere zilarrezko domina lortu zuen kilo bateko pisuko diskoa 49,73 metrora jaurti eta gero. Txapel-dunak, Paula Ferrandizek, June baino ia metro bat gehiagoko aldearekin lortu zuen urrea (50,64 m), alde oso gutxiarekin, egia esan.

Txapelketa bukatu eta berehala adierazi zenuen ez zeundela gus-tura egindako lanarekin, asteburukoa ez zela zure txapelketariko onena izan. COVID-19ak baldintzatutako urte arraro honek zeharo aldatu al du zure ohiko martxa?

"ZILARREZKOA LORTU DUT ETA HORI BALORATU BEHARRA DAGO, BAINA EZ NUEN NIRE MAILAN JAURTI"

Pozik nago zilarrezko domina lortu dudalako eta hori baloratu beharra dago. Baina egia da Espainiako Txapelketa Absolutuan ez nuela ongi jaurti. Egindako marka hori niretzat justua da; metro gutxi iruditzen zaizkit dudan mailarako eta entrenatu dudanerako. Ez dakit zein den txapelketa hain ongi ez ateratzearen arrazoia, baina nik uste ez nintzela sasoi egokian iritsi denboraldi hau oso laburra izan delako. Konfinamenduan ariketak egiten jarraitu

nuen, baina ez da berdina etxean entrenatzea edo betiko tokian, Leongo Errendimendu Altuko Teknikakazio Zentroan, material berezia gehiagorekin entrenatzea. Konfinamenduaren ondoren bakarrik 3 hilabete izan ditut prestatzeko, denbora gutxi da hori behar bezala prestatzeko, eta uste dut ez zela momentua izan. Ahalik eta hobekien egiten saiatu nintzen, baina Aire Zabaleko Espainiako Atletismo Txapelketa ez zen espero nuen bezala atera, eta azkenean bigarren sailkatu nintzen. **2020 hasieran sasoi betearen zeunden. Otsailaren 29an Castellongo atletismo kontrol batean 55,70 metroko jaurtiketa egin zenuen eta martxoan jokatzeak ziren Europako Neguko Txapelketarako sailkatzea lortu zenuen, 55 metroko gutxienekoa gainditu zenuelako. Eta martxoaren 7an Espainiako Neguko Jaurtiketan Txapelketan urrea lortu zenuen (52,10 m). Egia da marka hobetoa zenituela urte hasieran.**

Bai. Konfinamenduak asko eragin dit, errendimenduan bereziki. Zuk esan bezala, martxoan emaitza oso onak nituen: Europarako Txapelketarako sailkatu nintzen, eta egia esan, oso gogotsu nengoan denboraldi honetarako. Baina konfinamendua eta gero, denboraldiko helburu bakarra asteburuan jokatutako Aire Zabaleko Espainiako Txapelketa zen. Ahalik eta hobekien iristen saiatu nintzen, baina azkenean...

Akaso beste batzuetan baino urdugi zeunden?

Ez negoen txapelketatan egoten naizen moduan. Ez nuen normalean izaten dudan konfiantza hori. Denboraldi normal batean uda iristerako horrenbeste txapelketa egin ditugu, gure gorputza nola dagoen badakigula. Teknika gehiago landuta dago, eta teknika egonkorrago dago. Denboraldi honetan ez ditugu hainbeste txapelketa izan, eta behar bezala egoteko, txapelketa gehiago egitea eta konfiantza gehiago izatea falta zitzaidan, teknika gehiago entrenatzea. Azkenean, Madrilgoa horrela

"KONFINAMENDUAK ERRENDIMENDUAN ERAGINA IZAN DU. URTE HASIERAN MARKA OSO ONAK NITUEN"

atera zen eta hasieran amorratua nengoan, lehenengoak horren tarte gutxi atera baitzidan... baina baloratu beharra daukat bigarren postua lortu nuela, eta hori ez dela nolana hiko. Hortaz, alde horretatik begiratuta pozik nago. Iaz lortu nuen lehenengoz Aire Zabaleko Espainiako Atletismo Txapelketan disko jaurtiketan urrea lortzea, aurretik bigarrena eta hirugarrena izan bainitzen.

Martxoan Europako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatzeakoa zen Portugalen eta bertan behera geratu zen proba, pandemiagatik. Nazioarteko proba guztiak bertan behera geratu al dira?

Bai. Asteburuan jokatutako Espainiako Atletismo Txapelketa izan da udan jokatu dudana proba garrantzitsuena. Datorren urtean 2021eko egutegiko probak jokatuko dira soilik. Oraindik ez dakigu zein txapelketa izango diren, baina horietan parte hartzen saiatuko gara, beste txapelketetan aritzeko gutxienekoak lortu ahal izateko. Joko Olimpikoak ere 2021era arte atzeratu dituzte, baina ezin gara fidatu. Negua dator, COVID-19 bertan dugu eta ea zer gertatzen den.

Beraz, 2021ean egindako jaurtiketak eta emaitzak hartuko dira kontuan 2021eko txapelketetarako eta Joko Olimpikoetarako.

Hori da. Finean, guztia erreteatuko dute eta 2021etik aurrerako markak bakarrik hartuko dituzte kontuan. Eta ulertzekoa da. Guk zorrea izan dugu eta udan entrenatu ahal izan dugu, baina badaude beste herrialde batzuk oraindik ez direla entrenatzen ere hasi. Beraz, alde horretatik ez litzateke bidezkoa udan egin diren markak datorren urterako balio izatea, beste kirolari batzuk ez baitute ez entrenatzeko ez txapelketetan aritzeko aukerarik izan.

COVID-19 birusaren eraginez, asteburuan jokatutako Aire Zabaleko Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua egoitza batean jokatu beharrean, lau tokitan jokatu zen, ezta?

Bai, gu Moratalaz aritu ginen. Aitortu beharra dut txapelketa giroa, orokorrean, ez zitzaigula inori gustatu. Beroketak maskara jantzita egin behar izan genituen, jaurtiketa batetik besterako tarte osoan maskara jantzita egon behar izan genuen, eta distantziak mantentzeko eskaria entzun behar izaten genuen eten-

gabe. Kide batek marka ona edo lan ona egiten bazuen ezin zenuen berarengana hurbildu eta taldekidea besarkatu, eta hori gure-tako arraroa da, txapelketan zaudenean animatzea eta emaitza onak ospatzea kirolak duen alde polita baita. Hori guztia faltan bota zen eta nahiko hotza izan zen. Baina egoera berri honetara moldatu beharra dago eta ahalik eta arrisku gutxien hartu.

Leongo Errendimendu Altuko Atletismo Teknikifikazio Zentroak noiz zabaldu zituen ateak COVID-19 birusaren agerpenaren ondoren?

Ekainaren hasieran, baina nik ekainaren bukaerara arte ezin izan nuen joan, mugak ireki zituzten arte, Bakaikun pasa bainuen konfinamendua. Egun, taldeka entrenatu beharra dugu, materiala talde batek erabili badu desinfektatu arte ezin dugu ukitu, sartzean beti temperatura hartzen digute, kaletik oinetako batzuekin sartu eta barrura sartu baino lehen aldatu behar ditugu, ezin gara duxatu...

Akaso horrek orain ez du aparteko garrantzirik, baina neguan, izerdita, gaixotzeko arriskua dago.

Bai, nik uste dut erabaki berriak hartu beharko dituztela, badaudelako gauza batzuk beste modu batera egin daitezkeenak. Arriskua beti hor egongo da, baina nesken aldageletan gutxienez bi dutxa egotea eta mutilenetan beste bi eskatuko dugu, eta norbaitek erabili bezain pronto desinfektatzea. Bestela, neguan egiten duen hotzarekin gaixotu gaitzke. Argi utzi digutena da bi positibo agertuz gero zentroa itxiko dutela. Argi eta garbi. Hortaz, zentroan eta zentrotik kanpo ere, gure eguneroko bizimoduan kontu handiz ibili beharra dugu. Nik ez nuke nahi nire erruarengatik zentroa itxi behar izatea. Hortaz, tentuz bili beharra dugu.

Orain burua 2021ean duzu?

Bai, atsedena hartuko dut eta segidan 2021erako denboraldia prestatzen hasiko naiz, entrenatzen hasi eta betiko martxan, datorren urtekoa prestatzen.

Albaitarritza ikasten duzu Leongo unibertsitatean. Klaseak hasi dira?

Bai, aste honetan hasi ditugu baina online egiteko aukera dugu. Praktikak presentzialak izango dira baina datorren astean hasiko ditut eta hortaz, aste honetan Bakaikun nago; Madriletik zuzenean etorri nintzen Bakaikura. Uda Leonen eman dut, entrenatzen, udako asteburu batzuk izan ezik, eta gustura nago aste honetan etxean.

Hurrengo urtean Joko Olinpikoak jokatzeak dira. Gertu edo urrun ikusten dituzu?

Joko Olinpikoetan sartzea zaila da, disko jaurtiketan eskatzen duten gutxienekoa oso altua baita (63,5 metro). Baina iaz puntuen sistema jarri zuten martxan, hau da, txapelketa ezberdinetan hainbat puntu lortzeko aukera, eta zenbat eta puntu gehiago lortu, Joko Olinpikoetarako postu horietara gerturatzeak aukera gehiago daude. Beraz, puntuatzen duten txapelketa horietan parte hartzen saiatuko naiz, ahalik eta puntu gehien lortzeko. Gutxienekoa zaila da lortzen, baina puntuen sistemarekin Olinpikoetarako aukeratutako 32 horien artean sailkatzea lortu daiteke. 2020 denboraldia ez dut gustatu litzaidakeen bezala bukatu, baina uste dut buelta eman ahal diezaioke. 2020 hasieran, oso ongi nengoen, eta helburua da, berriro ere, fisikoki eta mentalki momentu horretara iristea eta hortik aurrera jarraitzea.

2020 urtea madarikatuta dago.

Bai, urte hau halakoa ari da izaten (kar, kar...). Hurrena ezberdina izango da, espero dezagun.



June Kintanak burua 2021 denboraldian du. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

Emakumeak atletismoan trebatzera animatu dituzte

ATLETISMOA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu du, hastapen eta hobekuntza ikastaroak, urriaren 9tik maiatzaren 21era arte, ostiraletan. Izena ematea zabalik dago

Emakumeei askotan kosta egiten zaie korrika egitera ateratzea. Teknika ezagutza falta dela, no-rekin ateratzea ez dutela... Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak duela 9 urte horretarako antolatu zuen, hain zuzen ere, Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola.

Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolan 18 urtetik gorako emakumeek eman dezakete izena, adinez txikikoendako Sakanako Atletismo Eskola martxan baitago. Altsasuko Dantzalekuko pistan izanen da, urriaren 9tik aurrera, ostiraletan. Hasi berriak direnak hastapen ikastaroan ariko dira, 17:00etatik 18:00etara, eta atletismoan sakondu nahi dutenendako hobekuntza ikastaroa dago, 18:15etik 19:15era. Monitorea Andoni Jaka Irurtzun izango da. Izena ematea urriaren 5 baino lehen egin behar da, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakanamank.eus). Prezioa: 50 euro.



Bi emakume ondo lasterketan. ARTXIBOA

Beste ikastaroak

Aurten ere fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, Sentiberatasun Kimiko Anizkoitza eta antzeko gaixotasunak dituzten pertsonendako osasuna hobetzeko jardura fisiko espezifikoa

koa antolatu du AFINA elkarteak (Asociación Fibromialgia de Navarra), Sakanako Mankomunitatearen eta beste udal eta entitateen laguntzarekin. Urriaren hasiko da ikastaroa, 3 herritan: Altsasuko Zelandi Kiroldegian (astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 17:30era), Irurtzungo Kultur Etxean (asteartetan eta ostegunetan, 10:40tik 12:10era) eta Etxarri Aranazko Osasun Etxean (astelehenetan eta asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era). Ikastaro honetan izena emateko epea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan. AFINAko bazkideek hilero 11 euro eta gainontzekoek hilero 17 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestalde, aurten ere kirol ego-kitua (igeriketa eta soinketa), musikoterapia eta psikomotritzitate eskainiko die Sakanako Mankomunitateak behar bereziak dituzten sakandarrei. Izena ematea eta informazio Kirol Zerbitzuan dago eskura.

Emoziorik ez Masters CaixaBank Torneoko azken jardunaldian

PILOTA Zabaleta eta Martija finalerdietarako sailkatuta daude eta Ezkurdia finalerdietatik kanpo geratu da

Masters CaixaBank Torneoko hasierako ligaxkako 14. eta azken jardunaldia jokatu da asteburuan baina ez dago misteriorik, aurreko asteburuan jokatutako jardunaldiak finalerdietara sailkatuko diren 4 bikoak zein izango diren argitu baitzuen. Artola eta Rezusta (11 puntu), Altuna III.a-Imaz (9 puntu), Olaizola II.a-Zabaleta (9 puntu) eta Bengoetxea VI.a-Martija (8 puntu) dira finalerdietarako sailkatu direnak. Ezkurdia eta Aranguren atean geratu dira (7 puntu), baina sailkatzeko aukerarik gabe.

Hortaz, asteburuan jokatuko den hasierako ligaxkako 14. eta azken jardunaldiak ez du aparteko emoziorik izango. Gaur, ostirala, Bengoetxea VI.ak eta Martijak Altuna III.a eta Imaz izango dituzte aurkari Lizarran. Bihar, larunbata, Ezkurdia-Arangurenek Olaizola II.a-Zabaletaren kontra jokatuko dute Hondarribian; Jaka-Albisu Artola-Rezustaren kontra lehiatuko dira Atarrabian; eta Urrutikoetxea-Irribarriak Elezkano II.a eta Aretxabaleta izanen dituzte aurkari Artaxonan.

Kontaktuzko kirolen entrenamenduak atzeratu dituzte

Nafarroak kontaktuzko kirolen entrenamenduen hasiera atzeratu egin du. Hasiera batean irailaren 14tik aurrera hasi ahal ziren saioak, eta talde askok egun horretan hasiera aurreikusia zuten, baina egun horretan bertan iritsi zen Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko erresoluzioa, kontaktuzko kirolen entrenamenduen hasiera urriaren 1era atzeratzen zuena. Erabaki honek futboleko, saskibaloiko, pilotako eta Sakanako burutzen diren beste hainbat kirolen artean du eragina. Bestalde, Nafar Kirol Jolasak antolatu ahal izateko planteamenduak aztertzen ari omen da Kirol Institutua, baina pandemiaren egoeraren arabera izango da.

Unai Aznar, Igor Arrieta eta Unax Trevejo Tafallako podiumean

TXIRRINDULARITZA Juniorretan eta kadeteetan podiumera igo ziren gure txirrindulariak

Larunbatean Electricidad Alonso lasterketa jokatu zen Tafallan. Bi proba jokatu ziren, bata juniorrena (100 km) eta bestea, kadeteena. Junior mailakoa oso gorabeheratsua izan zen, baina azkenean hirukote batek hartu zuen aurrea, Adrian Ferrer (Mollet Club Ciclista), Hugo Aznar (Quesos Albeniz-Burunda) eta Igor Arrieta (Sakana Group-Aralar) txirrindulariek osatutakoa. Helmugara batera iritsi ziren eta esprintean Adrian Ferrer gailendu zen, Aznarren eta Arrietaren aurretik. 11 segundora Unai Aznar (Quesos Albeniz-Burunda) sartu zen. Mikel Olaetxea (Sakana Group-Aralar) 13. tokian sartu zen, Sendoa Jauregi (Sakana Group-Aralar) 22. tokian, Aitor Alberdi (Sakana Group-Aralar) 23. tokian, Oihan Etxeberria (Quesos Albeniz-Burunda) 37. tokian eta Iker Mintegi (Quesos Albeniz-Burunda) 43. tokian. Igor Arrietak mendiko sailkapena irabazi zuen.

Kadeteetan Trevejo hirugarrena

Erasoz betetako lasterketa izan zen Tafallako kadeteen mailakoa. Azkenean Alvaro Martinek (Bici Aranda) ihes egin zuen eta bakarrik iritsi zen Tafallako helmugara (1:23:25). Unax Trevejo olaztiarra (Quesos Albeniz-Burunda) hirugarrena sartu zen, 22 segundora, eta Mikel Uncilla (Quesos Albeniz-Burunda) 7. postuan, 1:10era.

Aritz Oiarbide (Sakana Group-Aralar) 20. postuan sartu zen,



Ferrer, Aznar eta Arrieta. MARTIN EARLY

Asier Etxeberria (Quesos Albeniz-Burunda) 21.ean, Mikel Regil (Quesos Albeniz-Burunda) 23.ean, Adrian Martinez (Sakana Group-Aralar) 27.ean, Alex Lopetegi (Sakana Group-Aralar) 35.ean eta Manex Zufiaurre (Sakana Group-Aralar) 56.ean. Quesos Albeniz-Burunda taldeak talde onenaren saria jaso zuen.

Emakumezkoetan Laia Pugdefabregas (Nafarroa Ermitagaña) gailendu zitzaion bere taldekide Nahia Imaz altsasuarrari, esprintean.

Hurrengo egunean, igandean, kadeteen mailako XL. Azpeitia Saria jokatu zen (58,5 km), eta bertan lehiatu ziren Sakana Group-Aralar taldeko txirrindulariak. Mikel Arrasatek (Aurrea Ondarroa) irabazi zuen. Adrian Martinez 17. postuan sartu zen, Aritz Oiarbide 29. postuan, Manex Zufiaurre 37. tokian eta Alex Lopetegi 49.ean.

Igartzak lehiaketetara bueltatzeko aukera eman die

DUATLOIA Sergio Garcia de Eulate 11. postuan sailkatu zen, eta Mikel Astiz 18. postuan

Igandean VIII. Igartzako Mendi Duatloia jokatu zen Beasainen,aldi berean X. Euskal Herriko Mendi Duatloia izan zena. COVID-19 birusaren ondotik antolatatu den proba gutxienetako bat izan zen Beasaingoa. Duatletiek

4,2 km korrika, 13,5 km bizikletan eta 3,1 km korrika egin behar izan zituzten, mendian. Jon Ergin Dorronsoro izan zen azkarrena (1:18:40), Josu Urrestarazuri ia 4 minutu aterata (1:22:33). Mendi duatloiak ez dira Sakana

Izagirre eta Erbiti, Tourreko ihesaldietan

TXIRRINDULARITZA Euren liderrendako lan andana egiten ari dira sakandarrak, emaitza onekin, eta Tourreko zenbait etapetako ihesaldietan sartu dira. Mundialetara joateko aurre zerrandan sartu ditu biak Pascual Momparler selekzionatzaileak

Frantziako Tourrak irudi ikusgarriak utzi ditu azken egunotan Alpeetan. Alpeek erabakiko zutela esaten zen, eta larunbateko erlojupekoak guztia hankaz gora jartzen ez badu, behintzat, hala izango da.

Asteazkenean Alpeetako etapa garrantzitsuena jokatu zen, la Madeleine ikusgarria gailendu eta gero, kategoria bereziko Col de Lozen despeditu zena. Gorka Izagirre (Astana) eguneko ihesaldian sartu zen, baina faboritoen mugimenduak hasi ziren eta ihesaldiak ez zuen fruiturik eman.

Atzo etapa menditsua egon zen jokoan, etapa gorabeheratsua, eskalatzailen azken aukera. Erredakzioa isterakoan ez genuen gertatutakoaren berririk, baina bezperan Col de Lozek nahikoa erabakita utzi zuen sailkapen orokorra. Roglic-ek (Jumbo) bere lehen postua sendotu zuen, eta 57 segundora zuen bere arerio nagusia, Pogacar (UAE). Hirugarren postuan Col de Lozeko etapako garailea kokatu zen, Gorka Izagirreren taldekide eta lider Miguel Angel "Superman" Lopez kolonbiarra, 1:26ra. Mikel Landaren Bahrain taldearen erasoak ez zuen fruiturik izan eta 7. postuan zegoen atzo Landa, 3:27ra, eta Movistar Team talde-



Gorka Izagirre asteazkeneko ihesaldian. LE TOUR

ko Enric Mas 8. postuan, bera laguntzeko Hiriberriko Imanol Erbiti eta Movistar Team taldeko gainontzeko taldekideek egindako lanari esker. Pentsatzen da atzoko etapak ez zuela aldaketa gehiegirik ekarriko.

Mundialetarako zerrenda

Nabarmenezkoa da euren taldeen alde Gorka Izagirre eta Imanol Erbiti egiten ari diren lan andana. Euren liderrak Top-Tenean egoteko ezinbestekoak ari dira izaten, eta hori gutxi ez balitz, euren saiakerak egin dituzte,

egunotan sortu diren ihesaldietan sartuz eta lasterketan gozatuz. Sasoi betean daude, eta, horren isla, Espainiako Txirrindularitza Selekzioko selekzionatzaile Pascual Momparlerrek bi txirrindulari sakandarrak irailaren 24tik 27ra Imolan jokatu diren Munduko Txirrindularitza Txapelketarako aurre aukeratutako zerrandan sartu ditu, beste 15 txirrindularirekin batera. Tourra bukatu bezain pronto jakingo da horietatik zein 8 txirrindulari izango diren Mundialetara joango direnak.

Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulateren berezitasuna, baina altsasuarrak mendian ez dela horren gaizki moldatzen erakutsi zuen, 11. postuan sailkatu baitzen (1:30:46). Ihabarko Mikel Astiz Erro 18. postuan iritsi zen helmugara (1:34:42), eta Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrena proba utzi behar izan zuen, bizikletan matxura izan zuelako. Garcia de Eulatek aipatu duenez, "oso gustura, oso pozik" zeuden proba batean aritzeko aukera izategatik.



Sergio Garcia de Eulate, Isidro Asurabarrena eta Mikel Astiz, berotzen. SAKANA TRIATLOI



Bertso eskola batean ariketak egiten. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Idoia Granizo bertsolaria 2020ko Bardoak txapelketaren saio batean. NBE

Bertsoak egitea baino gehiago

Bertso eskoletan hamaika gauza ikas daitezkeela esan du Idoia Granizo bertsolari altsasuarra. Sakanan zazpi talde daude eta urriaren 5ean hasiko dute ikasturtea. Izena ematea irailaren 27ra arte izanen da, Bertsozale Elkartean webgunean

SAKANA

"Bertso eskolak askotan ikusten ditugu bertsolariak sortzeko fabrika bat bezala, baina hortik haratago doa". Idoia Granizo bertsolaria Altsasuko, Urdiaingo eta Lakuntzako bertso eskola taldeetan irakaslea da. "Sozializazio gune bat da, ikasle askorendako gune euskaldun bakarrenetarikoa, ahozotasuna lantzen da, bat-bateotasuna, jendearen aurrean aritzeko ohitura ere lantzen da...". Gauza "asko" lantzen dira, beraz, bertso eskoletan. Matrikulazio kanpaina martxan dago; 27ra arte izena eman daitezke Nafarroako Bertsozale Elkartean webgunean. Klaseak urriaren 5ean hasiko dira, eta Sakanan Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatz, Urdiainen eta Altsasun izanen dira taldeak.

Talde "politik" sortzen dira bertso eskoletan, Granizok azal-

du duenez. "Denetarik egoten da, eta adinaren arabera izaten dira". Hortaz, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik batxilergoko 1. mailako ikasleak hartzen dituzte. "Normalean ikasle gehienak LHko 5. eta 6. mailakoak eta DBH 1. mailakoak izaten dira, baina badira helduagoak ere". Helduen bertso eskolak ere badira, eta "hor ere ateak zabalik" dituzte.

Mundu bat

Granizo ez ezik, Sakanako bertso eskoletan Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz etxarriarrak izanen dira irakasle. "Nafarroako Bertsozale Elkarte saiatzen da horrela izan dadin. Herriko edo, behintzat, bailarako jendeak bertso eskolak ematea". Erreferentziak izatearen garrantziaz hitz egin du Granizok, "denok elkar ezagutzen dugu, eta garrantzitsua iruditzen zaigu".

Helduen bertso eskolan ibiltzen direnak haurren bertso eskolak antolatzen dituzte. "Erakusteko ez dela kanpoko zerbait". Irurtzungo bertso eskolako irakaslea izanen da.

Bertsolaritza sustatzea da bertso eskolen helburu nagusietako bat. Baina ez bakarria. Testuinguruaren arabera bertso eskolen helburuak askotarikoak izan daitezke. "Lagun talde bat euskaratzea izan daiteke, euskaraz aritu ahal zarela dakizun gune bat, eta herriaren arabera hori ez da erraz lortzen, lagun talde bat izatea zure kuadrillatik edo zure klasetik kanpo eta, etorkizunean, Euskal Herriko bertsolariaren ingurugiroaren jendea ezagutzea". Gauza asko kontatzen dituzte Granizok. Bertsolariak "gauza asko" hartzen dituelako. "Ez da bakarrik etorkizunean oholtzaren gainean bertsolari bat ikustea". Helburu bat

zein beste bat izan, guztiek "asko ikasiko" dutela eta lan "handia" egingen dutela esan du Granizok. Mundu bat da: "Gai jartzailearen lana, esaterako, jendea trebatu behar da ere, eta bertso eskolek sekulako lana egiten dute. Eta hau, adibide bat besterik ez da.

Egoera berezia

Ikastetxe guztiak bezala, bertso eskolak ere "bat-batean" gelditu behar izan ziren martxoan. "Inprobisatu behar izan genuen, mundu guztia bezala". "Ahal izan zuten moduan" bertso eskolak aurrera eraman zituzten. "Erabateko elkarlana" aipatu du Granizok: "Nafarroako irakasle onen artean materiala elkarbanatzen genuen". Sare sozialak eta teknologia berriak baliatu dituzte eskolekin aurrera jarraitzeko, hala ere, bertsolariak aitortu duenez, "bertsolariak aurrez aurretik hainbeste duenez ez da batere erraza izan". Dinamizazioa eta motibazioa mantentzen saiatu dira. "Guztion artean" aurrera eraman dute, eta balorazio "positiboa" egin dute. "Ikasleen harrerara oso ona izan da". Pozik bukatu dute ikasturtea.

Ikasturte berriaren hasieran, "behintzat", eskola presentzialak bermatzen saiatuko dira, segurtasun neurri guztiak betez: maskara, pertsonen arteko distantzia, desinfekzioa... "Zaila da haurrak direlako eta niri gustatzen zait ariketak bultzatzea eta kontaktuan egon daitezen. Baina aurretik distantzia mantenduko dugu".

Sakanako bertso eskolak

Irurtzun, kultur etxean

- LH5-6 Astearteetan, 16:15-17:15
AITOR IRASTORTZA

Lakuntza, kultur etxean

- LH6-DBH1 Ostiraletan, 16:00-17:00
IDOIA GRANIZO

Etxarri Aranatz, kultur etxean

- DBH4 Asteazkenetan, 19:30-20:30
SAATS KARASATORRE
- LH5-6 Astearteetan, 16:30-17:30.
ENEKO LAZKOZ

Urdiain, udaletxean

- LH4-DBH2 Ostiraletan, 17:15-18:15
IDOIA GRANIZO

Altsasu, AEK euskaltegian

- DBH4-Batx. Astearteetan, 19:30-20:30
IDOIA GRANIZO
- LH6-DBH2. Ostiraletan, 18:30-19:30
IDOIA GRANIZO



Doris Vicente Pikuxarreko marrazki erakusketan. UTZITAKOA

Marrazki "bereziak"

"Duela urte pila ba" Irurtzongo margo tailerretan izena eman zuen eta txikitatik zeukan marrazteko nahiari atea ireki zion Doris Vicente irurtzundarrak. Irailean eta urrian bere marrazki "bereziak" erakusketa izanen da Pikuxarren

IRURTZUN

Haurra zenetik Doris Vicentek marraztu nahi zuen, "baina ez nekien". Buruan zeuzkan gauzak marrazten zituen, "oinarri akademikorik" gabe. "Ez nekien ikusten nituen gauzak marrazten". Beraz, "nire modura" marrazten hasi zen: "Ateratzen zitzaidana marrazten nuen". Horrela jendeak gaizki ala ongi egin zuen ez zekiela aitortu du. Beraz, duela zenbait urte Irurtzongo arte tailerra hasi zenean marrazten ikasiko zuela pentsatuta, "marrazkiak ongi eginak egiten ikasiko nuela pentsatu nuen, zentzu gehiago emanez". Marrazten hasi zen eta pixkanaka koadroak egiten hasi zen ere. Hala ere, bere estilotik atera gabe. Abstraktutik gertu dagoen estiloa du Vicentek, figura errealistetatik urrun.

"Nik ez dakit nola deitu. Nire marrazki beltzak deitzen diet".

Goyaren marrazki beltzei aipamen egiten die. "Marrazki horiek ateratzen zaizkit". Hasiera batean oinarririk ez zuenez, "marra batekin" hasten zela azaldu du Vicentek, "eta hortik tiraka beste guztia sortzen nuen". Marrazten hasten denean, normalean ez daki zer egin behar duen. "Agian hodei baten forma gustatzen zait eta hori marrazten dut eta hortik tiraka beste figura bat sortzen dut, zerbaiten antza hartzen duen arte".

Izaki mitologikoen marrazkien erakusketa jarri du Pikuxarren, eta irailean eta urrian izanen

MARRA BAT MARRAZTEN HASTEN DA VICENTE, ETA HORTIK FIGURAK SORTZEN DITU

da Irurtzongo euskal txokoan. "Marrazten hasi nintzenean lagun batek esan zidan nire lanak gustatzen zitzaizkiola eta ea etxerako baten bat egingo ote nion. Animaliak egiteko esan zidan". Beraz, gai bat pentsatuz lanean hasi zen. Horrela sortu zitzaion izaki mitologiak egiteko ideia ere. "Folklore eta herriko kultura gustatzen zaizkit eta pertsonaiak egitea pentsatu nuen". Bere beste marrazkiekin alderatuta, "zailagoa" izan dela esan du. "Jendeak pertsonaia horien itxuraren ideia sortuta dute, eta nik nire alorrera eraman nahi nuen. Kostatu zitzaidan". Marrekin sortutako pertsonaiak dira. "Nik uste argi ikusten direla. Hala ere, Basajaunarekin ez nintzen oso gustura gelditu. Beste forma bat bilatu behar dut". Beldurgarriegi geratu zitzaizkiola uste du.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Radar COVID aplikazioa

Irailaren 7tik Nafarroa osoan erabilgarri dago Radar COVID aplikazioa. Sartu, eta lehenengo gauza, pribatutasuna babestea lehenetsuna dela diote. Horrelako app batean pribatutasuna babestea oso garrantzitsua da eta egun hauetan asko hitz egin da honi buruz. Irailaren 9an, historian lehen aldiz, administrazio publikoak tresna digital erraldoi honen kodea argitaratu zuen, "Mozilla Lizentzia Publikoa 2.0" lizentzia librearekin.

Behin kodea askatuta, adituek funtzionamendua zehatz mehatz zein den ikusi ahal izan dute. Telefonoek bluetooth bidez soilik detekta ditzakete aldamenean egondako beste telefonoak, GPS-a edo beste teknologia inbaditzaileagoak erabili gabe. Gainera, telefonoek ausazko gakoak sortzen dituzte identifikatzeko, ez bakoitzaren informazioa. Eta ausazko gako hauek dira, bi metrora edo gutxiagora egonez gero, beste telefonoekin elkarbanatzen dena, bluetooth seinalearen intentsitatearen arabera neurtzen da gertu egon ote den.

Pertsona batek PCR batean positibo emanez gero, PCR proban bertan emandako kode bat sartu beharko du. Eta orduan, bere gako gordeta duten mugikor horietan abisua agertuko da, positibo batekin kontaktua izan dela eta osasun etxera deitzeko. Inongo momentuan ez da elkarbanatuko pertsona positibo horren informazioa.

Pertsona askok galdetu didate app honi buruz, batez ere pribatutasunarekin kezkatuak. Egutero, pentsatu gabe ematen diogu adostasuna gure datuekin negozioa egiten duten aplikazio horiei guztiei. Baina kasu honetan, teknologia benetan osasunerako erabilgarria den kasu honetan, konfinamendua saihesteko baliozkoa izan daitekeenean, beldurtzen gara. Baimenak bakarrik ikustea da garrantzitsua, multinazionalen aplikazioek informazio pila bat jasotzeko eskatzen dute, baina Radar COVID-ek bluetootha eta sarearen erabilera bakarrik eskatzen dute. Zuen esku uzten dut erabakia!

Ez da Vicentek egiten duen lehenengo erakusketa, izan ere, Irurtzongo arte tailerrak ikasturte amaieran egindako lanak erakusten ditu Pikuxarren, herriko beste tabernetan eta Atarrabian ere izan dira. Vicentek bakarrik ere beste erakusketaren bat egin du Pikuxarren: "Inauteriak asko gustatzen zaizkit ere. Nire gai nagusietako bat izan ohi da". Argazkilaritza eta marrazketa uztartzen zituen erakusketa bat egin zuen duela urte batzuk. "Irurtzongo eta Altsasuko herri inauterien argazkiak eta marrazkiak erakutsi zituen. "Jendea gustatu zitzaion".

Nortasuna

Ukitu berezia ematen die, gainera, erakusketei. "Marrazki hauek txuri beltzean dira eta kartulina batean daude. Atentzioa deitzeko euskarri bat behar dute". Izaki mitologikoak zirela

kontuan hartuz, egurra erabili du marrazkiak zintzilikatzeko.

Vicentek proiektu berriak ditu martxan, arte tailerraren ikasturte berriaren hasierarekin batera. "Hobetzea edo aldatzea planteatzen dut beti". Aurten marrazten marrazki hauek egitera itzuli nahi du. "Beste fase batera pasa nahi dut". Hortaz, marrazkiak koadro batean egitetik, mihise batean egitera pasa nahi du. Gainera, teknika desberdinak nahastuko ditu: "Errotulagailuekin hasi eta gero akrilikoak erabili eta kolorea eman".

Gauza berriak probatzen ditu, egiten duena gustatu arte. Irurtzongo arte tailerrak lagundu dio. "Pintura klaseetan gauza hauek egitera ausartzen naizen bakarra naiz eta irakasleak, Isa Garciak, beti esan dit gauza berriak probatzeko". Urtero teknika desberdin bat proposatzen dio: txinatar tinta, testura berriak...

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Etengabe ikasten, ikertzen eta esperimendatzen aritzen da Iratxe Reparaz arbizuarrak. Arte zuzendaria da, eta pixkanaka sormen zuzendaritzara saltoa ematen ari dela esan du. DeepSodako proiektuak garatzen ditu, eta Zetak taldeko sortzaileetako bat izan zen. Haren lana bideo-klipetan, argazkietan eta beste-lako elementuetan ikus daiteke.

Zer da arte zuzendaria izatea?

Arte zuzendaria naiz, baina azkenaldian hori aldatzen ari dela eta sormenezko zuzendari bihurtzen ari naizela uste dut. Arte zuzendaritza da ideia baten alde bisuala garatzea. Azkenaldian, proiektu baten ideia orokorra pentsatzen eta transmititzeko moduak zuzentzen ari naiz gehiago. Sormenezko zuzendaritzaren ardura da ideia pentsatzea, ez bakarrik bisualki; estrategikoa, dena. Kontzeptu osoa. Hasieratik hasita bukaeraraino. Ez da bakarrik zerbait polita egitea.

Publizitatea eta Harreman Publikoak karrera egin zenuen. Zerk erakartzen zintuen?

Txikitatik gustatu izan zait jendea guzuzen sentiaraztea. Norbait etxera afaltzera etortzen bazen saiatzen nintzen dena ahalik eta politen jartzen. Etxean sartzean sentsazioak sentitzea. Eskutitzak idazten nituen, argazkiak egin eta gero erakutsi... Jendearengan emozio horiek ikustea. Hasieran zaletasun bat zela uste nuen, baina nire ahizpak kazetaritza ikasten zuen eta publizitate karrera bat zegoela eta hori lantzen zela esan zidan. Hor sartu nintzen zertan zen gehiegi jakin gabe. Publizitatearen mundua oso handia da. Azken urtean zer nahi nuen jakin nuen.

Eta arte zuzendaritza ikasi zenuen.

Bartzelonan master bat egin nuen. Mugarri bat izan zen. Erakutsi zidan arazoei sormenezko soluzioak ematen. Nire lana zen arazoak konpontzeko ideiak edukitzea, eta hori markengana bideratzen genuen. Agentzia handi batean lan egiten hasi nintzen, marka oso handientzat. Ez zitzaidan gehiegi gustatu eta agentzia txikiago batean sartu nintzen. Pila bat ikasi nuen hor. Publizitatea, komunikazioa eta psikologia oso lotuta daude, eta niri asko gustatzen zait. Nire lana askotan da jendea ulertzea. Orduak pasatzen ditut jendea eta gizarteak ulertzen; zergatik egiten den hau eta zergatik bestea.

"Emozioak sentiaraztea gustatu izan zait beti"

IRATXE REPARAZ BEASKOETXEA ARTE ZUZENDARIA

Publizitatearen munduan marka handietarako lan egin ondoren, orain musikaren munduan proiektuak, ideiak eta mezuak garatzen ditu

Esperimendatzea eta ikastea gus-tatzen zaizu.

Hori da. Ahal izango banu beti ikasten egongo nintzateke. Kua-drillako Ariane Insaustik esan

zuen ikastea maite zuela, bizi-tza osoa ikasten egongo zela. Esaldia grabatuta geratu zitzaidan, eta egia da. Publizitatea, gero psikologia, gero soziologia...

Lanean ere ikasten da, eta horretan nabil.

Proiektuaren osotasuna lantzen duzu. Nola sortzen da proiektu bat?

Niri gustatzen zait ahalik eta profesionalen egitea. Nik arte zuzendaritza ikasi nuen bezala, badago pertsona bat bideogintza ikasi zuena, beste pertsona bat arlo grafikoa, beste bat estilismoa... Ideia bat daukadanean lehenengo gauza da taldea sortzea; bakoitza bere arloan espezialista. Horrekin ziurtatzen dut ondo aterako dela.

Horretarako estiloak eta modak kontrolatu beharko dituzu, ezta?

Bai. Unibertsitateko irakasle batek esaten zuen begia hezi behar dela. Gizartean mugitzen dena ezagutu behar duzu. Belaunaldi desberdinak ulertu behar dituzu ere. Proiektuaren arabera pertsona batzuekin edo beste batzuekin lan egiten dut. Bakoitzak bere izaera du eta garrantzitsua da lan egiten duten pertsonen proiektuaren izaerarekin bat egitea.

Zure lanetan zu atzetik zaudela ikus daiteke?

Oraindik prozesu horretan nago. Gauza desberdinak probatzen ari naiz, baina esan dezaket nahi-

"PUBLIZITATEA ARAZOEI SORMENEZKO KONPONBIDEAK EMATEA DA"

ko estilo naturala izaten saiatzen naizela. Fikzioa gustatzen zait, baina dokumental itxura ematen dut. Errealista.

Oso gaztea zara eta publizitate agentzia batean lan egin duzu, orain arte zuzendaria zara... Talentuaren adierazle?

Ez dakit talentua den. Baina beste gauza bat dago: diziplina oso garrantzitsua da. Esaten dute %1 kreatibitatea dela eta %99 lana. Bartzelonan nengoen lan asko egin nuen, asko, eta diziplina hori hartu nuen. Jende oso onarengandik ikasi dut ere.

Publizitatea ikasten ari zinenen, oso ondo zer zen jakin gabe, honaino iristea espero zenuen?

Ez. Duela bi urte ez nuke inolaz ere ez imajinatuko jaialdi bat antolatzen egongo nintzela. Telebistararako iragarkiak egiten ariko nintzela imajinatzen nuen. Baina ikusi dut publizitatea ez dela bakarrik telebista. Dena da. Musikaren mundua ezagutu dut, eta asko gustatu zait. Agian ere familiaz eta lagunez inguratuta lan egiten dudalako. Eta etengabe ikasten ari naizen mundu bat delako ere.

Eta Arbizun.

Sorpresa bat izan da. Zetak-ekin hasi ginen, baina orain harago doa. Ideiak edukitzea da, eta elkarrekin forma ematea. Zetak ez zen musika talde bat bezala sortu, zerbait gehiago bezala baizik. Oso pozik gaude.

Etengabe guzuzen egiten ari zarete. DeepSoda hainbat proiektu garatu dituzu ere.

DeepSoda sortu genuen gure ideiak autogestionatzeko: Baloreak, abestiak produzitu, bideo-klipak egin... Hor gaude gure bidea definitzen. Xabi Bandiniren bideo-klipak egin ditut, Baloreak proiektu osoa, orain Nafarroa 1512... Gauza asko.

Nola aldatu da publizitatearen mundua?

Nire belaunaldikoez ez dugu aldaketa hori bizi. Irakasleek beti esaten zuten lanean hasi zirenean telebistararako, irratirako eta egunkarietarako lan egiten zutela. Orain publizitatea ez da iragarki bat egitea, arazoei konponbidea aurkitzea da. Askok aldatu da. Teknologia aldatzen doan heinean, publizitatea moldatzen doa. Etengabe ari gara berritzen eta gazteengatik asko ikasten dugu. Formatu anitzak kontsumitzen dituzte, eta pantaila bakoitzak publizitate mota bat behar du.



Iratxe Reparaz arte zuzendaria. IKER GOZATEGI



Ainara Lopetegi eta Uxue Lazkano Harganbela ganbelan. UTZITAKOA

"Adinekoek ilusioz hartu dute ganbelen proiektua"

Lakuntzako Zabalarte mendi taldeko kideak Aralarko Lakuntzako ganbelak eraberritzeko egitasmoan murgilduta daude. Dagoeneko 3 ganbela konpondu dituztela aipatu du Uxue Lazkanok, eta bidea markatuko duten edo ez aztertuko dute gero

Eneida C. eta Maider B. LAKUNTZA

1 Zer dira ganbelak?

Ganbelak edo askak iturriko ura jasotzen duten egiturak dira, abereek eta pertsonen ura edan dezaten.

2 Non daude Lakuntzakoak?

Ganbela dezente daude, batzuk herrian eta beste batzuk mendian,

baina gu Aralarko Lakuntzako dermioan dauden antzinako ganbeletan oinarritu gara. Sei dira: Etxaaltxeta, Sardano, Artazil, Harganbela, Arzubieta eta Saldisazpiko ganbela.

3 Ba al dakizue noiz eraikiak diren eta zeinek egin zituen?

Lakuntzako Udaleko artxiboan herriko ganbelei buruzko infor-

mazioa badago, baina mendikoen inguruko informazioa, ezer gutxi. Felix Arregik aipatu digu betidanik ezagutu dituela. 88 urte inguru izango ditu, atera kontuak...

4 Zergatik jarri duzue martxan Lakuntzako ganbelak eraberritzeko proiektua?

Ganbelak Lakuntzako historiaren parte direlako. Garai batean zu-

ten funtzioa galtzen joan dira eta funtzioa ez betetzean, aspaldian ez dira konpondu eta hausten eta lehortzen joan dira. Pena da altxor hori galtzea. Gainera, mendian urik gabe geratuz gero estualdi batetik atera gaitzakete.

5 Zein itxura dute ganbelek?

Ia guztiek elementu amankomun batzuk dituzte. Esaterako, animaliek ura edateko aska edo ganbela eta pertsonen edateko ontzia komunikatuak dituzte, eta bideetatik gertu daude. Baina, gero, bakoitzak badu bere berezitasuna. Batzuk zuzenean lurpeko urarekin betetzen dira, beste batzuk lurraren gainetik doan erreko ura biltzen dute eta beste batean haitza zulatu zuten ganbelara ura bideratzeko. Etxaaltxetakoak badu berezitasun bat pertsonen ura edateko: burua zulo baten barrura sartu behar da, modu honetan edateko ura garbi mantentzen da.

6 Nondik sortu zen ganbelak eraberritzearen ideia?

Ainara Lopetegi lagunak gaiaren inguruan jakin mina zuen eta nire senarrari, Iñaki Arkauzi, non zeuden erakusteko eskatu zion. Kuadrillan mendira joateko ohitura hartu dugu eta hainbat ganbela lotzen zituen ibilbide bat egin genuen. Zerbait egin beharra zegoela iruditu zitzaigun, ganbela gehienak egoera kaxkarran baitzeuden. COVID-19-aren ondorioz Zabalarteko irteerak bertan behera geratu direnez, mendi taldearen bitartez gaia dinamiza zitekeela iruditu zitzaigun. Horrela, Zabalartek batzar bat deitu zuen proiektuaren berri emateko eta parte hartu nahi zuen oro gonbidatzeko.

7 Zenbat pertsona ari zarete ganbelak eraberritzen?

Dozena bat pertsona inguru joan gara orain arte. Taldea aldakorra da, bakoitza ahal duenean joaten da. Deialdia Whatsapp edo Facebook bidez zabaltzen da eta gero nahi duena agertzen da.

8 Dagoeneko baten bat eraberritu duzue?

Hiru: Etxaaltxeta, Sardano eta Artazil. Lakuntzako Udaleri eskerrak eman nahi dizkiogu, falta zaigun erreminta eta materiala Udalak jartzen baitu.

9 Zertan datza egiten duzuen eraberritze lana?

Ganbela bakoitzak bere beharrak ditu. Lan ezberdinak egin ditugu: ganbelara iristeko bidea eta ganbela inguruak garbitu, ganbela bera hustu eta garbitu, lurpeko urak ganbelara bideratu, pitzadurak zementuz itxi...

10 Behin ganbelak konponduta, zein da hurrengo asmoa?

Ganbelak eraberritu ondoren, ganbeletara doan ibilbidea markatuko dugun edo ez erabakiko dugu. Iritzi kontrajarriak daude. Badira, mendian inpakturik ez sortzeko, ez dela markatu behar pentsatzen dutenak eta badira inpaktu ahalik eta txikiena sortuz markatzearen aldekoak. Bestalde, orain arte egin dena dokumentatu nahiko genuke.

11 Adineko jendeak zer dio?

Ilusioz hartu dute gaia, beraiek hainbeste erabili dituzten ganbelez norbait arduratzeak pozten ditu. Ekimena primeran iruditzen zaie, eta batzuk pena ere adierazi dute haiek eraberritza joan ezin dutelako.

WEB DISEINUA **GRAFIKOA** **ENPRESETARAKO EUSKARRIAK**

LIBURU **MAKETAZIOA** KARTEL **GINTZA**

ALDIZKARI **PAPER** **APLIKAZIOAK**

IRUDI KORPORATIBOAK **KOMUNIKAZIOA**

PUBLIZITATEA



DISEINUA GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu